



Akta honen osagarri bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.  
Honako hau da ondoriozko artxiboaren identifikazio kodea:

aa507e2f121a197627081f8b26ed65a568eb41fb361528e3fd75a2ca9bfb8f66

Lotura honetan dago: <https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/idazkaritza/udal-plenoetako-aktak>

## **TOLOSAKO UDALBATZAK 2021EKO URTARRILAREN 28AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

**2021.01.28**

Tolosako Udaletxean, 2021eko urtarrilaren hogeita zortzian, 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da, eta eguneko gai-zerrenda aztertzeko, udal batzarkide hauek agertu dira:

### **Alkate-lehendakaria:**

Olatz Peon Ormazabal (EAJ-PNV)

### **Parte hartu duten zinegotziak:**

Begoña Tolosa Mendia (EAJ-PNV)  
Nerea Letamendia Belloso (EAJ-PNV)  
Jose Francisco Amantegi Zubiria (EAJ-PNV)  
Joseba Koldo Ormazabal Lopez (EAJ-PNV)  
Egoitz Sorozabal Iturain (EAJ-PNV)  
Xabier Balerdi Tolosa (EAJ-PNV)  
Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe (EAJ-PNV)  
Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui (EHBILDU)  
Kristina Pelaez Errazkin (EHBILDU)  
Aitana Amondarain Esquisabel (EHBILDU)  
Aitzol Garcia Azurmendi (EHBILDU)  
Olatz Artola Apezteguia (EHBILDU)  
Ander Figuerido Zubiria (EHBILDU)  
Garbiñe Marzol Ormazabal (EHBILDU)  
Xabier Martinez Quinquilla (EHBILDU)  
Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria (PSE-EE)

### **Idazkaria:**

Begoña Garmendia Vazquez

### **Jarduneko kontuhartzailea:**

Paulino Alonso Eraso



### Eguneko gai-zerrenda

1. Ondorengo akta onartzea:  
2020ko abenduaren 18 Ohiko Osoko Bilkurakoa (Akta elektronikoa).
2. Onartzea udal langileen eta dedikazioa duten korporaziokideen ordainsari-igoera, 2021. urtekoa.
3. Hasierako onespina ematea Agaramundu 7ko eraikineko araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzan oinarri arautzaileen aldaketari.
4. Onartzea Soldadu 8ko soberako lurzatia Udal Ondasunen erroldan sartzeari.
5. Hasierako onarpena ematea Tolosako etxez etxeko laguntza zerbitzua arautzen duen Erregelamenduari.
6. Hasierako onarpena ematea Tolosako Udaleko Euskararen Aholku Kontseilua arautzen duen Erregelamenduari.
7. Behin betiko onespina ematea Generoaren ikuspegia txertatua duen Tolosako Hiri Mugikortasun Jasangarrirako Planari.
8. Behin betiko onespina ematea Samaniego Ikastetxeko lursailean (P4) estalpe bat eraiki ahal izateko xehetasun azterlanari.
9. Behin betiko onespina ematea Orixe institutuaren lursailean (P2) institutu berria eraiki ahal izateko xehetasun azterlanari.
10. Behin betiko onespina ematea "18. Apatttaerreak" hirigintza esparruko "18.1 Tolosa-Ibarrako lurak" azpiesparruko Hiri Antolamenduko Plan Bereziari.
11. Plan honen onspenaren berri ematea: Tolosako Adikzioen II. Tokiko Plana 2021-2025.
12. Kreditu aldaketa honen berri eman:  
16/2020 kreditu aldaketarako espedienteari dagokiona, kreditu transferentzien modalitatekoa.
13. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:  
2020ko abenduaren 1etik 30era (2020/1961-2020/2161).
14. Etxerat elkartearen mozioa.
15. EHBILDU taldeak aurkeztutako mozioa: Eusko Jaurlaritzari Udalenzako ezohiko funtsa berezi gehigarriaren eskaria.
16. EHBILDU taldeak aurkeztutako mozioa: Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arretasare publiko antolatu gisa defendatzea.
17. Galderak eta eskaerak.

#### Gai-zerrendatik kanpo

- Egiari Zor Fundazioaren mozioa.
- Gipuzkoako Ostalaritza Aurrera Elkartek aurkeztutako mozioa.
- Gipuzkoako Ostalaritza Aurrera PNV-PSE-EE aurkeztutako mozioa.



Udal Idazkariak adierazi du Osoko Bilkura era erdi presentzian egingo dela, honako modu honetan:

- Alkateak, udal talde politikoetako bozeramaileak (Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, eta Jose M. Villanueva Telleria), eta Udaleko Idazkariak eta Kontuhartzaileak, pleno aretoan daude
- Gainontzeko korporazioko kideek, zoom bidez, era telematikoan hartuko dute parte.

Udalbatza plenoa osatzeko lege-oinarria honako hau da: COVID-19aren hedapenak eragindako osasun-alertak sortu duen egoeraren aurrean, 11/2020 Errege Lege Dekretuak, bere Bigarren Azken Xedapenean, 7/85 Legearen 46. artikulua aldatu eta erantsitako 3. atalean xedaturikoa: «3. *En todo caso, cuando concurren situaciones excepcionales de fuerza mayor, de grave riesgo colectivo, o catástrofes públicas que impidan o dificulten de manera desproporcionada el normal funcionamiento del régimen presencial de las sesiones de los órganos colegiados de las Entidades Locales, estos podrán, apreciada la concurrencia de la situación descrita por el Alcalde o Presidente o quien válidamente les sustituya al efecto de la convocatoria de acuerdo con la normativa vigente, constituirse, celebrar sesiones y adoptar acuerdos a distancia por medios electrónicos y telemáticos, siempre que sus miembros participantes se encuentren en territorio español y quede acreditada su identidad. Asimismo, se deberá asegurar la comunicación entre ellos en tiempo real durante la sesión, disponiéndose los medios necesarios para garantizar el carácter público o secreto de las mismas según proceda legalmente en cada caso.*

*A los efectos anteriores, se consideran medios electrónicos válidos las audioconferencias, videoconferencias, u otros sistemas tecnológicos o audiovisuales que garanticen adecuadamente la seguridad tecnológica, la efectiva participación política de sus miembros, la validez del debate y votación de los acuerdos que se adopten.»*

Beraz, aipaturiko xedapenean araututakoaren arabera, udal idazkariak honako eginbide hauek egin ditu:

Lehenik.- Batzarkide guztien identitatea egiaztatu du.

Bigarrena.- Fisikoki ez dagoen batzarkide bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena egin du, Estatuko lurraldean dagoela ziurtatzeko.

Hirugarrena.- Irizpenen bozketa banan-banan egingo da, eta batzarkide bakoitzak bere botoa azalduko du.

Eta bukatzeko, batzarkideek, aho batez, berretsi dute Osoko Bilkura era erdi presentzian egitea.

Ondoren, batzarkideak bilkurako gai-zerrenda aztertzen hasi dira.



Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio gai hauek aztertzeko:

**1. ONDORENGO AKTA ONARTZEA:**

**2020KO ABENDUAREN 18 OHIKO OSOKO BILKURAKOA (AKTA ELEKTRONIKOA).**

Izenburuan aipatutako akta aho batez onartu dute.

**BATZORDE INFORMATIBOEN IRIZPENAK**

**2. ONARTZEA UDAL LANGILEEN ETA DEDIKAZIOA DUTEN KORPORAZIOKIDEEEN ORDAINSARI-IGOERA, 2021. URTEKOA.**

Gai honetan, 2021eko urtarrilaren 25ean, 2021/955 erregistro zenbakia duen idatziaren bitartez, EHBILDU udal taldeak **EMENDAKINA** hau aurkeztu zuen:

*“Urtarrilaren 20an ospaturiko antolakuntza batzordean aurkeztu den akordio proposamenaren aurrean, Tolosako EH Bilduko udal taldeak honakoa proposatzen du:*

*Onartuko den soldata igoera langileen soldatetarako bakarrik izatea, eta korporazioko kideen soldatetan, 2021an igoerarik ez aplikatzea. Honela, korporazioko kideen soldata igoerari dagokion diru kopurua beste behar batzuk asetzeko erabiltzeko aukera baliatzea eskatzen dugu.*

*Igoera aplikatu ahal izateko aurrekontuetako gastua onartu behar denez, partidaren soberakina erabiltzeko bi aukera proposatzen ditugu:*

*1 Kreditu ez erabilgarri izendatu eta 2021eko likidazioa egitean altxortegira gehitzea. Era berean, kreditu gehigarri bat onartzea, soberakin horren kopuru berekoa gutxienez, COVID-19aren ondorioz egoera zaurgarrienean dauden norbanako zein kolektiboek beharrei erantzuteko.*

*2. Aurreikusitako gastu onarpen berdina egitea eta COVID-19aren ondorioz sortu daitezkeen pertsonal beharretarako erabiltzea.*

*Hori horrela, honako emendakin proposamena aurkezten dugu Udalbatzak onartu dezan:*



## IRIZPEN PROPOSAMENA

**Lehenik.-** Tolosako udaleko langileen (funtzionari, laboral zein pertsonal ebentuala) eta udal sozietateen ordainsarien % 0.9ko igoera onartzea.

**Bigarrenik** .- Erabateko dedikazioa duten korporazioko kideen ordainsariak bere horretan mantentzea.

**Hirugarrenik** .- Igoera aplikatu ahal izateko aurrekontuan konstatatuta dagoen 90.000 euroko gastua udal langileen soldata igoera ordaintzeko erabilera onartzea.”

Batzarkideek, emendakina bozkatu dute, eta bozketaren emaitza honako hau izan da:

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Beloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla

**Abstenzioa:** Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, gehiengoz, **onartu du** EH Bildu udal taldeak aurkeztutako emendakin adostua.

Ondoren, plenoko kideek bozkatu dute Antolakuntza Batzordearen irizpena onartutako zuzenketa sartu ondoren:

**2021eko urtarrilaren 20ko Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren irizpena aldatuta onartutako zuzenketarekin.**

## AURREKARIAK

2020ko abenduaren 31an Estatuko Aldizkari Ofizialean 11/2.020 Legea argitaratu zen; bertan, 2021 urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartu ziren eta txosten honi dagokionean, sektore publikoan aritzen den pertsonalaren ordainsariak onartzen dira.



## ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

**Lehen.**- Aipatu Legea aplikagarria da udaletxe guztiei, izan ere ordainsariei dagokionean oinarritzko araudi gisa kontsideratua bait dago eta gainera, legeak "sektore publiko" gisa honako entitateak barnebiltzen ditu bere 18 artikuluan:

"Uno. A efectos de lo establecido en el presente Capítulo, constituyen el sector público:

- a) La Administración General del Estado, sus Organismos autónomos y Agencias estatales y las Universidades de su competencia.
- b) Las Administraciones de las Comunidades Autónomas, los Organismos de ellas dependientes y las Universidades de su competencia.
- c) Las **Corporaciones locales y Organismos de ellas dependientes**.
- d) Las Entidades Gestoras y Servicios Comunes de la Seguridad Social.
- e) Los órganos constitucionales del Estado, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 78 de la Constitución.
- f) Las **sociedades mercantiles públicas**, entendiéndose por tales aquellas en las que la participación, directa o indirecta, en su capital social de las Administraciones y entidades enumeradas en este artículo sea **superior al 50 por ciento**. En el sector público estatal se considerarán como tales las reguladas en el artículo 111.1 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.
- g) Las entidades públicas empresariales y el resto de los organismos públicos y entes del sector público estatal, autonómico y local.
- h) Las fundaciones del sector público y los consorcios participados mayoritariamente por las Administraciones y Organismos que integran el sector público.
- i) El Banco de España en los términos establecidos en la Ley 13/1994, de 1 de junio, de Autonomía del Banco de España.
- j) El Fondo de Reestructuración Ordenada Bancaria (FROB)."

Hortaz, lege hau aplikagarri izango da bai Tolosako udalari.

**Bigarrena.**- 2021 urtean sektore publikoan diharduten langileen ordainsariak honako igoera izateko aukera 1zango dute, aipatutako 18.BI artikulua baitan:

*Dos. En el año 2021, las retribuciones del personal al servicio del sector público no podrán experimentar un incremento global superior al **0,9 por ciento** respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2020, en términos de homogeneidad para los dos períodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo. Los gastos de acción social no podrán incrementarse, en términos globales, respecto a los de 2020. A este respecto, se considera que los gastos en concepto de acción social son beneficios, complementos o mejoras distintos a las contraprestaciones por el trabajo realizado cuya finalidad es satisfacer determinadas necesidades consecuencia de circunstancias personales del citado personal al servicio del sector público.*

*Tres. En el sector público se podrán realizar aportaciones a planes de pensiones de empleo o contratos de seguro colectivos siempre que no se supere el incremento global fijado en el apartado anterior.*

*Cuatro. La masa salarial del personal laboral, que podrá incrementarse en el porcentaje máximo previsto en el apartado Dos de este artículo, en términos de*



*homogeneidad para los dos periodos objeto de comparación, está integrada por el conjunto de las retribuciones salariales y extrasalariales devengadas por dicho personal en el año anterior.*

*Se exceptúan, en todo caso:*

- a) Las prestaciones e indemnizaciones de la Seguridad Social.*
- b) Las cotizaciones al sistema de la Seguridad Social a cargo del empleador.*
- c) Las indemnizaciones correspondientes a traslados, suspensiones o despidos.*
- d) Las indemnizaciones o suplidos por gastos que hubiera realizado el trabajador.”*

Hortaz, 2021 urtean sektore publikoko langileek % 0,9ko ordainsarien igoera izango dutela 2021eko urtarrilaren 1etik zenbatzen hasita, 2020ko abenduaren 31ean zuen ordainsariekiko.

**Hirugarrena.-** Erabateko dedikazioz aritzen diren korporazio kideen ordainsarien erregulazioa ere aztertu behar da. Beraien ordainsariak ondoko arau hauetan oinarritzen dira:

-Batetik, Erregimen Lokaleko Oinarrizko Legearen 75 artikuluan eta Euskadiko Udal Instituzioen 32 eta 33 artikuluetan arautzen dira.

- Bestetik, 1/2015 Foru Dekretu/Araua, ekainaren 30ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki korporazioetako kideen ordainsarien gehienezko kopuruak arautzen ditu. Bertan, 10.001 eta 20.000 biztanle artean dauden udalerrien karguentzat ezarritako ordainsariak ez dute 67.087 euro gordin urtean gainditu behar.

Dena den, erabateko dedikazioz aritzen diren korporazio kideen ordainsarien kasuan, beste bi xedapen kontuan hartu behar dira.

- Batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak ekainaren 30eko 1/2015 Foru Dekretu-Araua artikulua bakarraren laugarren atalean xedatzen du korporazio kideen ordainsariei ezarritako mugak eguneratuko direla erreferentzia gisa Eusko Jaurlaritzako karguen ordainsariak eguneratzeko erabilitakoak.

- Bestetik, aipatzen diren eguneraketa hauek Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero onartu beharreko aurrekontuetan xedatzen dira eta egun ez daude oraindik onartuak.

**Laugarrena.-** Onartzeko prozedurari dagokionez, bi xedapen gutxienez kontuan hartu beharko dira:

- Batetik, apirilaren 2ko 7/1985 Legearean 22.2 i) artikuluan arabera, Udaltzako eskuduntza du gai hau onartzeko.

- Bestetik, urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateratua onartzen duena, bere 37.1 a) artikuluan ezarritakoaren baitan, udal langileen ordainsarien igoeren aplikazioa, udaleko ordezkari sindikalekin negoziatu beharko dira.



**Bosgarrena.-** Ordainsarien iguera honek jadanik udaleko aurrekontuan konsignazioa du.

Tolosako Udaleko Antolakuntza Batzordeak, 2021eko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, irizpen-proposamena (zuzendu gabe) aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

**Aldeko botoak:** Xabier Balerdi Tolosa, Nerea Letamendia Beloso, Begoña Tolosa Mendia eta Jose Mari Villanueva Telleria.

**Abstentzio botoak:** Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Kristina Pelaez Errazquin .

Hasierako zuzenketa onartu ondoren, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

### IRIZPENA

**Lehenik.-** Tolosako udaleko langileen (funtzionario, laboral zein pertsonal ebentuala) eta udal sozietateen ordainsarien % 0.9ko iguera onartzea.

**Bigarrenik** .- Erabateko dedikazioa duten korporazioko kideen ordainsariak bere horretan mantentzea.

**Hirugarrenik** .- Iguera aplikatu ahal izateko aurrekontuan konsignatuta dagoen 90.000 euroko gastua udal langileen soldata iguera ordaintzeko erabilera onartzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Beloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla

**Abstentzioa:** Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, gehiengoz, onartu du Udal langileen ordainsari-iguera, 2021. urtekoa.





### **3. HASIERAKO ONESPENA EMATEA AGARAMUNDU 7KO ERAIKINEKO ARAUBIDE OROKORREKO BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN OINARRI ARAUTZAILEEN ALDAKETARI.**

#### **2021eko urtarrilaren 20ko Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren irizpena**

#### **AURREKARIAK**

Tolosako Udaleko Udalbatzak, 2012ko otsailaren 28ko Osoko Bilkuran, Agaramundu 7ko Babes Ofizialeko etxebizitzak alokairuan esleitzeko oinarriak onartu zituen.

Oinarri horien helburua zen baldintzak ezartzea Tolosako Agaramundu 7ko alokairu babestuko erregimen orokorreko 24 etxebizitza, garaje eta trastelekuen esleipenerako.

Guztira, 24 etxebizitza esleitu ziren hiru kupotan banatuta: 20 etxebizitza, 70 urtetik gorako eskatzaileentzat; 2 etxebizitza, babes bereziko gizarte-egoera zehatzetan zeuden eskatzaileentzat; kupo orokorra osatzen zuten eskatzaileentzako etxebizitza bat gorde zen; eta araudiaren baitan mugikortasun urri iraunkorreko eskatzaileen kupoarentzat etxebizitza egokitu bat gorde zen.

#### **GAIAREN AZTERKETA**

I. Etxebizitza Zerbitzuko teknikariak oinarritu du bere proposamena ondoko arrazoi hauetan:

Oinarrietan arautu zenaren arabera, Agaramundu 7ko babes ofizialeko etxebizitza bat errentamenduan eskuratu ahal izateko, bizikidetzta-unitateko edozein kidek ezin zuen inolako **etxebizitzarik izan jabetzan**, azalera-eskubidean edo usufuktuan, Behin-behineko kalifikazioaren egunetik, hau da 2009ko apirilaren 29tik, bi urte lehenagoko epealdian.

Halere, EAeko arautegiaren baitan, etxebizitza-premiaduntzat hartuko ziren, etxebizitza baten titularrak izan arren, 2008ko apirilaren 16ko Aginduaren 3. artikuluan adierazten diren salbuespenetako batean aurkitzen direla egiaztatzen zuten eskatzaileak:

- 1- Eskatzaileak 70 urte edo gehiagokoak izan eta jabetzan zuten etxebizitzak Indarreko araudian xedatutako irisgarritasun-baldintzak betetzen ez zituenean.
- 2- Mugikortasun urri iraunkorreko eskatzaileen kasuan, etxebizitza apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzekoan, jasotako sarbideei eta igogailuei buruzko xedapenak betetzen ez dituen eraikin batekoa izatea.



Agaramunduko etxebizitzak esleitzeko oinarriek 9. puntuan arautzen dute etxebizitza baten jabe diren esleipendunek etxebizitza hori Tolosako Udalaren esku utzi beharko dutela, eta lagapen hori gauzatzeko prozedura guztia arautzen da: etxebizitzaren lagapena arautzeko hitzarmena, prozedura, eta abar.

### **9. ETXEBIZITZA BATEN JABE DIREN ESLEIPENDUNAK.**

*Esleipenean aukeratuak atara diren pertsonak etxebizitza baten jabe izanez gero, baina salbuespen-egoeraren batean badaude, Tolosako Udalaren esku jarri beharko dute etxebizitza.*

*Etxebizitza horiek bizigarritasun baldintzak betetzen badituzte, errentamendu-kontratua sinatu baino lehen, esleipendunek hitzarmena sinatu beharko dute Udalarekin etxebizitza alokairuan ipiniko duela hitzemandeko, horretarako ezarriko diren epe eta baldintza onartu beharko dituelarik (Udal teknikariak egin beharreko azterketa, Udal teknikariak bere txostenean aipatutako konponketak egitea, etb.). Hitzarmen hori ez sinatzeak adjudikazioari uko egitearen ondorioak izango ditu.*

*Esleipendunak errentamenduan jarriko duen etxebizitzak bizigarritasun baldintzak gordetzeko beharrezkoak izan daitezkeen konponketen gehieneko kopurua 30.000 eurotako izango da, kostua handiagoa izanez gero Udalak etxe hori merkatuan ez jartzeko ahalmena izango duelarik.*

*Konponketa hauen gastuak Udalak ordaintzen baditu, jabeak, gehieneko bost urteetako epean bueltatu beharko ditu. Jabeak eta bere oinordekoek zorren aitorpena eta ordainaren ardura zehazteko dokumentua sinatu beharko dute.*

*Halaber, Udalak konponketa hauen gastuei aurre egin baino lehenago zenbait datu egiaztatzeko ahalmena izango du: Diru sarrerak, ondarea, kapital likidoa, etab.*

*Ondoren, Igarondoko esleipendunak, zuzenean, udalak proposatzen duen pertsonarekin sinatuko beharko du jabetzan duen etxebizitza horren errentamendu-kontratua eta ondorioz, zuzenean berari ordainduko beharko dio udalak zehaztuko duen alokairua.*

### **UTZITAKO ETXEBIZITZEN ESLEIPENERAKO PROZEDURA.**

*Behin utzitako etxebizitzak zenbat eta zeintzuk izango diren zehazten denean, Udalak iragarriko du eskuragarri dauden etxebizitzaren poltsa ireki duela aloka daitezzen eta esleitzeko oinarri orokorrak onartuko ditu, eta esleipendun izan daitezkeenei publikoki deituko die.*

**Errentaren zenbatekoa.-** *Udalak ezarriko du errentariak ordaindu beharko duen errentaren zenbatekoa, horretarako, bizikidetzaren unitatearen diru sarrerak kontutan hartzeaz gain, higiezinaren merkaturako prezioak naiz errentak kontutan hartuta tasazio bat egingo delarik. Zenbateko hori urtero aldatuko da, kontsumo-prezioen indizearen arabera.*

*Etxebizitzagatik ordainduko duen errentak ez du gaindituko Igarondoko esleipendunak ordaindu beharko duen urteko errenta, horretarako Igarondoko esleipendunak ordainduko duen komunitatearen gastuak ere kontutan hartuko direlarik.*

*Halere, errentaren zenbatekoa lehen seinalatua baino handiagoa izan daiteke, Udalak horrela erabakiz gero, parametro objektiboetan oinarrituta. Finkarenak, adibidez, hauek: etxebizitzaren azalera, etxebizitzaren egindako inbertsio obrak, finkaren kokapena, etab; aipatu etxebizitzaren errentariarena, beriz, honako hau: ahalmen ekonomikoa.*

*Errentariak errentan emandako etxebizitzek dituzten kontsumo gastu guztiak ordaindu beharko dituzte, alegia, elektrizitatea, ur hornidura, telefonoa, gasa, eta, oro har, etxebizitza bakoitzari dagokionez bereiz daitezkeen guztiak. Komunitate-gastuak maizterrak ordaindu beharko ditu eta berauek errentarekin batera ordainaraziko zaizkio*



*kuota osagarri gisa. Hona gastu horietako batzuk: Atariaren eta eskaileraren garbiketa; su-itzalgailuak; eskailerako elektrizitatea; garajeen fluoresente, bonbilla eta su-itzalgailu berriak jartzea, garajea garbitzea eta bertako elektrizitatea; atezain automatikoaren mantentzea; denentzako TB antenaren mantentzea; onibarraren administrazioa; eta abar.*

Horiek horrela, eta kontuan izanda 2012. urteko esleipenerako zozketaren ondorioz sortu ziren zerrendak agortu egin direla, deialdia egin behar da azken aldian hutsik gelditu diren hainbat etxebizitza esleitzeko, eta, hainbat arrazoiengatik, egokitzen jo da oinarri arautzaileen 9. puntua aldatzea.

Azaldu behar da esleipendunen etxebizitzak alokairu sozialean eskaini ahal izateko Udalaren esku jarri izanak hainbat eragozpen sortu dituela. Kasu batzuetan, jabeek beren errezeloak erakutsi dituzte etxebizitzak alokairuan jartzeko orduan, beren seme-alaba edo senitartekoei lagatzea nahiago zutelako.

Beste kasu batzuetan, zaila izan da Agaramunduko etxebizitzaren kontratuaren iraupena jabeak alokairuan laga behar izan duen etxebizitzaren errentamendu kontratuarekin egokitzea.

Hainbat kasutan, etxebizitza ezin izan da alokairuan jarri, ez zituelako betetzen eskatutako bizigarritasun-baldintzak, eta egia bada ere, kasu batzuetan, Agaramunduko jabe esleipendunek eskertu egin zutela errenta bat jasotzea, gehienetan onura baino eragozpen gehiago ekarri ditu.

Horregatik guztiagatik, eta batez ere kontuan izanda ez araudi autonomikoak, ez tokikoak, ez dutela behartzen alokairuko babes ofizialeko etxebizitzaren esleipendunak etxebizitza baten jabe izan eta administrazio esleipendunaren eskura jarri behar izatea, eta aipatutako zailtasunak kontuan hartuta, Agaramunduko etxebizitzak esleitzeko oinarrien 9. puntua aldatzea proposatzen da, ondoren adierazten den moduan jasota geldituko delarik:

### **9. ETXEBIZITZA BATEN JABE DIREN ESLEIPENDUNAK.**

*Adjudikazioan hautatuak gertatu diren pertsonak etxebizitza baten jabe izanez gero, jabetzan duten etxebizitza ez dute Tolosako Udalaren esku utzi beharrik izango.*

*Hori bai, esleipendunek hutsik gelditu den etxebizitza Alokabide SAren esku utzi ahal izango dute. Tolosako Udalak hitzarmena du Alokabide Eusko Jaurlaritzaren sozietate publikoarekin, besteren artean, udalerrian hutsik egon daitezkeen etxebizitzak merkaturatzea sustatzeko.*

*Horrela, Bizigune programaren bidez, Agaramunduko etxebizitza babestu baten esleipendun hautatua izan den jabeak hutsik utziko duen etxebizitza hori alokairu babestuen merkaturatu jarri ahal izango du, eta Tolosako Udalaren Etxebizitza Zerbitzuak nahiz Eusko Jaurlaritzako Alokabide Zerbitzuak aholkularitza eskainiko diote etxebizitza alokairuan jartzeko prozesu osoan zehar. Hala, Bizigune programak eskaintzen dituen berme eta abantaila buruzko informazio zehatza jasoko du.*



Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedaturikoa ikusirik, oinarri hauen aldaketaren hasierako onespena Udalbatzari dagokio, Lege horren 22.2d) artikuluan araututakoaren arabera.

## II. AZTERKETA JURIDIKOA

### 1.- Oinarri juridikoa eta Udalaren eskumena

Tokiko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak, 25.2.a apartatuan, honako hau adierazten du:

“2.- Udalerriak eskumen propio gisa jardungo du beti, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legeriaren arabera, honako gai hauetan:

A) Hirigintza: hirigintza-plangintza, -kudeaketa, -exekuzioa eta -diziplina. Ondare historikoa babestea eta kudeatzea. **Babes publikoko etxebizitzen sustapena eta kudeaketa**, finantza-jasangarritasuneko irizpideen arabera. Eraikina kontserbatzea eta birgaitzea”.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak arlo honetan neurriak ezartzen ditu. Besteak beste, 17.1 7 apartatuak: **“Udalerrien eskumen propioak: 1-lege honetan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udalerriek honako esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak:7) Etxebizitza plangintza, programazioa eta kudeaketa.”**

**2- Oinarrien izaera eta tratamendu juridikoa-** Azken finean, oinarriak xedapen orokorren izaera dute, eta, beraz, Ordenantza bezala tramitatu behar dira. Baita aldaketa puntuala ere.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1 a) artikulua ahalak esleitzen dizkie udalei erregelamenduak (eta beraz, kasu honetan oinarriak) egiteko eta bere burua antolatzeke, lurralde-izaerako administrazio publikoak diren aldetik eta beren eskumenen esparruan.

Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, VI. tituluaren legegintza-ekimenari eta erregelamenduak emateko ahalari buruzkoan, arauketa berri bat arautzen du, eta administrazioek legegintza-ekimenaren eta erregelamenduak egiteko ahalaren egikaritzea hartara egokitu beharko dute. Hala, 129. artikuluan ezartzen du administrazioek printzipio hauen arabera jardungo dutela: premia, eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia.

Lege horren 133. artikulua, xedapen orokorretan, herritarren prozesu parte-hartzailea arautzen du eta derrigorrezkotzat jotzen du hasierako jendaurreko prozesu hori. Laugarrengo apartatuak, ordea, ez du beharrezkotzat hartzen tramite hori erregulazioa partziala bada. Beraz, kasu honetan justifikatuta egongo litzateke hura ez egitea.



Tolosako Udaleko Antolakuntza Batzordeak, 2021eko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

**Aldeko botoak:** Xabier Balerdi Tolosa, Nerea Letamendia Belloso, Begoña Tolosa Mendia eta Jose Mari Villanueva Tellería.

**Abstentzio botoak:** Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Kristina Pelaez Errazquin .

Beraz, gehiengoz, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

## IRIZPENA

**LEHENENGOA.-** Hasierako onespena ematea Agaramundu 7ko eraikineko araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren oinarri arautzaileen 9. puntuaren aldatetari.

**BIGARRENA.-** Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedaturikoa jarraikiz, Araubidearen aldaketa hau eta dagokion espedientea jendaurrean jartzea, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ditzaten, hori guztia arau hauei jarraituz:

1. Informazio publikoa eta interesdunen entzunaldiko epea, 30 lanegunekoa, erreklamazioa eta iradokizunak aurkez daitezten.
2. Aurkezturiko alegazioak ebatzi eta oinarrien behin betiko testua onartzea, Udalbatzaren osoko bilkurari dagokiona.
3. Informazio publikoko epean inolako erreklamaziorik aurkezten ez bada, oinarriak behin betiko onartutzat joko dira.
4. Oinarriak behin betikoz onartu ondoren, haien testu osoa argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Tolosako web orrian, eta Tolosako Udalaren Gardentasunaren Atarian, eta etxebizitzak esleitzeko eta itxaron zerrendak osatzeko deialdia argitaratuko da, izena emateko epeari hasiera emanez.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta Tolosako Udalaren webgunean argitaratzea.



Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, udalbatzak aho batez **onartu** du hasierako onespina ematea Agaramundu 7ko eraikineko araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren oinarri arautzaileen aldaketari.

#### **4. ONARTZEA SOLDADU 8KO SOBERAKO LURZATIA UDAL ONDASUNEN ERROLDAN SARTZEA.**

##### **2021eko urtarrilaren 20ko Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren irizpena**

2018ko ekainaren 21eko 2018/1312 Alkatetza Dekretuz, obra baimena eman zitzaien Soldadu Berri Promociones SL enpresari Soldadu kaleko 8an 14 etxebizitza eta 7 trasteleku eraikitzeko.

Obra proiektuan adierazten ez den arren, behe solairuko terrazek Udalaren jabetzakoa den terreno bat okupatzen dute, katastroan zenbakirik ez duena eta udal inbentario eta jabetza erregistroan jaso gabekoa.

Hori horrela izanik, 2020ko urtarrilaren 8ko 2020/29 Alkatetza Dekretuz, Soldadu Berri Promociones SL enpresari lehen erabilerako baimena ukatu zitzaion, bestek beste, sustatzaileek terrazen jabetza ehuneko ehunean eskuratu arte.

Komenigarria da etxebizitzaren sustatzaileek eskuratzea lursail hori, batetik, obran dagoeneko erabili delako lursail hori terrazak handitzeko, eta, bestetik, Udalaren titulartasuneko izateak funtsik ez duelako. Aipatutako lursail hori, metro gutxi izateaz gain, eraikin horren jarraian dagoen urbanizazioko eskaileretako paretaren atzean ezkutatuta geratzen da. Ondorioz, lursail horren mantentze-lanak egitea oso zaila litzateke Udalarentzat.

Beraz, egoera ikusirik, Hirigintzako teknikariak proposatu zuen soberako lurzati deklaratzeko eta "Soldadu Berri SLri" besterentzea.



Honela bada, Udalbatzak 2020ko martxoaren 5eko Ohiko Osoko Bilkuran hasiera batez onartu zuen soberako lurzati deklaratzeko espedientea. Jendaurreko informazio epearen ondoren, alegaziorik ez zela egon egiaztatuta, Udalbatzak behin betikoz onartu zuen soberako lurzatiaren espedientea 2020ko irailaren 24ko Ohiko Osoko Bilkuran.

Soberako lurzatiaren espedientea izapidetzen zen bitartean, soberako lurzati deklaratu behar zen lursailaren balorazio ekonomikoa enkargatu zitzaion G&C Estudio-ko M. G. C. arkitektoari.

Udal zerbitzu teknikoek balorazio txostena errebisatu ondoren, 2020ko abuztuaren 7ko sarrera erregistroarekin ekarri zuen M. G. C.k, eta ontzat eman du udal arkitektoak 2020ko azaroaren 5eko txostenean.

Azpimarratu behar da balorazio-txostena behin-behineko datuen arabera egin zutela, balorazio-txostena enkargatu zen garaian altxamendu topografikorik ez zegoelako. Beraz, balorazio-txostenean jasotako balioa doitu egin beharko da altxamendu topografikoan agertzen den benetako neurketaren arabera. Honela, honako hau da soberako lurzatiaren balioa:

**48,80 m<sup>2</sup> x 70,36 euro = 3.433,57 euro.**

### **SOBERAKO LURZATIAREN DESKRIBAPENA**

- 1.- Kokapen geografikoa: Soldadu kaleko 8aren atzealdea. (Planoa, katastrokoa 1.zb.) Katastroan alta emateko zain.
- 2.- Azalera: 48,80 m<sup>2</sup> (2020ko uztaileko plano topografikoarekin bat).
- 3.- Mugak: iparraldean, Soldadu kaleko 8ko etxebizitza-eraikina; ekialdean, Soldadu kaleko 8ko etxebizitza-eraikina; mendebaldean, San Joan plazaren urbanizaziokoa den eskaileren pareta; hegoaldean, Soldadu kaleko 6ko eraikina eta San Joan plazaren urbanizaziokoa den eskaileren pareta.
- 4.- Titulartasuna: ez dago titulurik, oso aspaldidanik Udalarena.
- 5.- Karga edo zamarik: ez du.
- 6.- Hirigintza-parametroak: hiri lurzorua, eraikigarritasunik gabekoa.
- 7.- Ondasunaren erabilera: libre dago, inolako eraikuntzarik gabe.
- 8.- Balioa: 3.433,57 euro.
- 9.- Katastroko erreferentzia: 7576658.
- 10.- Soberako lurzati deklaratu 2020ko irailaren 24ko Osoko Bilkuran.
- 11.- Ondare-izaera.

### **AZTERKETA JURIDIKOA**

**Lehena.- Aplikatu beharreko legeria:**



- 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onetsi zuena –TEOE–; 7. eta 8. artikulua eta 109. eta 115. artikulua.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.

#### **Bigarrena.- Lursail bat soberako lurzati deklaratzeko erabilitako oinarri juridikoak:**

Ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeetako Ondasunen Erregelamenduarenak, 7. artikuluan ezarrikoaren arabera, **soberako lurzatiak dira toki-erakundeen jabetzako lur-eremuen zatiak, txikiak direlako, forma irregularra dutelako edo dauden lekuan daudelako, erabileraren egokirako balio ez dutenak.** Soberako lursailek ondare-ondasunen kalifikazioa dute.

Lur-eremu bat soberako lurzati aitortzeko, kalifikazio juridikoa aldatzeko espediente bat bideratuko da, aipatutako Toki Erakundeetako Ondasunen Erregelamenduaren 8. artikuluari jarraikiz.

#### **Hirugarrena.- Soberako lurzati izendatutako lursaila besterentzeko erabilitako oinarri juridikoak.**

Ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeetako Ondasunen Erregelamenduarenak, 115. artikuluan xedatutakoaren arabera, soberako lurzatiak jabe mugakideari edo mugakideei salduko zaie zuzeneko salmentaz.

Hizpide dugun espedientean, interesa duen jabe mugakide bakarra dago, Soldadu Berri Promociones SL, hain zuzen ere.

#### **Laugarrena.- Lurzati inbentarioan sartzeko oinarri juridikoa:**

Toki erakundeen ondasunen araudia onesten duen 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa (17-35 artikulua). Horien arabera, Udalak ondasun guztiak inbentariatzeko eta eguneratzeko obligazioa du.

Hala, 17. artikuluan dio *toki-korporazioak behartuta daudela beren ondasun eta eskubide guztien inbentarioa egitera, edozein dela ere ondasun eta eskubide horien izaera.*

**Organo eskuduna: Osoko Bilkura,** Toki Entitateen Ondareak arautzen dituen 1372/1986 Errege Dekretuak, ekainaren 13koa, 34. artikuluan xedatutakoaren arabera eta Toki Entitateen Oinarriak arautzen dituen Legearen 22. artikuluen arabera.

Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2021eko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:





**Aldeko botoak:** Xabier Balerdi Tolosa, Nerea Letamendia Belloso, Begoña Tolosa Mendia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Kristina Pelaez Errazquin eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Beraz, hori dena ikusirik, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

## IRIZPENA

**LEHENA.-** Udal Inbentarioan sartzea lurzati hau:

### Deskribapena:

- 1.- Kokapen geografikoa: Soldadu kaleko 8aren atzealdea.
- 2.- Azalera: 48,80 m<sup>2</sup> (2020ko uztaileko plano topografikoarekin bat).
- 3.- Mugak: iparraldean, Soldadu kaleko 8ko etxebizitza-eraikina; ekialdean, Soldadu kaleko 8ko etxebizitza-eraikina; mendebaldean, San Joan plazaren urbanizaziokoa den eskaileren pareta; hegoaldean, Soldadu kaleko 6ko eraikina eta San Joan plazaren urbanizaziokoa den eskaileren pareta.
- 4.- Titulartasuna: ez dago titulurik, oso aspaldidanik Udalarena.
- 5.- Karga edo zamarik: ez du.
- 6.- Hirigintza-parametroak: hiri lurzorua, eraikigarritasunik gabekoa.
- 7.- Ondasunaren erabilera: libre dago, inolako eraikuntzarik gabe.
- 8.- Balioa: 3.433,57 euro.
- 9.- Katastroko erreferentzia: 7576658.
- 10.- Soberako lurzati deklaraturia 2020ko irailaren 24ko Osoko Bilkuran.
- 11.- Ondare-izaera.

**BIGARRENA.-** Hori horrela egin ondoren, "Soldadu Berri SL"ri saltzea immatrikulazioaren baldintzaren pean.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta "Soldadu Berri SL"ri.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.



Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du Soldadu kaleko 8ko soberako lurzatia udal ondasunen erroldan sartzea.

## **5. HASIERAKO ONARPENA EMATEA TOLOSAKO ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN ERREGELAMENDUARI.**

### **Herritarrak Batzorde informatiboaren 2021eko urtarrilaren 20ko irizpena.**

#### **AURREKARIAK**

Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuen arduradunak, 2020ko azaroaren 30ean egindako txostenean, Tolosako etxez etxeko laguntza zerbitzua arautzen duen udal arautegia onartzeko proposamena egin zuen.

Espedientea izapidetzerakoan, kontuan izan dira Euskarak, Berdintasunak, Idazkaritzak eta Kontuhartzaitzak egin dituzten ekarpen teknikoak.

#### **AZTERKETA JURIDIKOA**

##### **1.- Oinarri juridikoa eta Udalaren eskumena**

Toki-Administrazioaren Arrazionalizazioa eta Iraunkortasuna arautzen dituen abenduaren 27ko 27/2013 Legea indarrean sartu ondoren, aipatu Administrazioaren Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen eskuduntzen sistema aldatu egin zen. Zehazki, ondoko aldaketa hauek eragin zituen lege berriak:

- Udal eskumenen sailkapena egin zituen: udalen eskumenen artean berezkoak, delegatuak, eta bestelakoak bereizi ditu lege berriak.
- Udalen berezko eskumenen gaiak murriztu egin ditu.
- Udalen eskumenen egikaritzea ekonomia eta finantza jasangarritasunaren irizpideen menpe jarri ditu.

Era honetan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikulua 2. atalari idazketa berria eman zion Arrazionalizazio lege horrek, eta gainera bat osatu zuen, non udalek berriazko eskumenak egikaritzea baitzuzten. Gai horien artean, 25.2 artikulua e) atalak xedatzen du udalek, besteak beste, behar sozialeko egoeren inguruko informazioa eta ebaluazioa jaso eta baztertze egoeran edo arriskuan dauden pertsonen berehalako arreta emateko arloan eskumenak beteko dituztela, betiere, Estatu eta Autonomia Erkidegoko legedian ezarritako moduan.

Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko entitateei aplikagarria zaien Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua udalerrien eskumen propioak arautzen ditu eta horiek zein esparru materialetan erabili ahal izango dituzten eskumen propioak zehazten ditu.

Bestalde, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 1875/2015 Dekretuan xedatutakoaren ondorioz, zehaztuta gelditu da etxez etxeko



laguntza zerbitzua udal eskumeneko zerbitzua dela eta adinekoentzako egoitza zentroak eta autonomia mugek eragindako premiei erantzuteko eguneko zerbitzuak foru aldundiaren eskumenekoak direla.

## 2.- Erregelamenduaren izapidetzea

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 49. artikuluan xedatzen du Ordenantzak onartzeko jardunbidea:

- Hasierako onespena, osoko bilkuraridagokiona, aipatu Legearen 22.2.d) artikuluan araututakoaren arabera.
- Informazio publikoa eta interesatuen entzunaldiko epea, 30 lanegunekoa, erreklamazio eta iradokizunak aurkez daitezzen.
- Aurkezturiko alegazioak ebatzi eta Erregelamenduaren behin betiko testua onartzea, osoko bilkurari dagokiona.
- Informazio publikoko epean inolako erreklamaziorik ez badago, Erregelamendua behin betiko onartutzat emango dute.

## 3.- Organo eskuduna

Goian aipatu den moduan, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2.d) artikuluan xedatutakoaren arabera, Erregelamenduaren hasierako onespena osoko bilkuraren eskumena da.

Tolosako Udaleko Herritarrak Batzordeak, 2021eko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

- **Aldeko botoak:** Nerea Letamendia, Begoña Tolosa, Izarne Iglesias, Jose Mari Villanueva.
- **Abstentzio botoak:** Aitzol Gartzia, Kristina Pelaez eta Olatz Artola.

Beraz, gehiengoz, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

### IRIZPENA

**LEHENA.-** Hasierako onarpena ematea Tolosako etxez etxeko laguntza zerbitzua arautzen duen Erregelamenduari.

**BIGARRENA.-** Erregelamendu hau eta dagokion espedientea informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ditzaten. Era berean, zerbitzua ematen ari den enpresa kontratatuari, Caser Residencial-i, epe horren barruan entzunaldia ematea.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta Tolosako Udalaren web orrian argitaratzea.



Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** hasierako onarpena ematea Tolosako etxez etxeko laguntza zerbitzua arautzen duen erregelamenduari.

## **6. HASIERAKO ONARPENA EMATEA TOLOSAKO UDALEKO EUSKARAREN AHOLKU KONTSEILUA ARAUTZEN DUEN ERREGELAMENDUARI.**

Gai honetan, 2021eko urtarrilaren 27an, 2021-00000001053 erregistro zenbakia duen idatziaren bitartez, Udalbatza osatzen duten hiru taldeek honako **EMENDAKIN ADOSTU** hau aurkeztu zuten:

### **ZUZENKETA-PROPOSAMENA**

Erregelamenduaren 7. artikuluan honela dio:

*«Kontseilukide guztiek dute boto eskubidea, baina proposamenak onartzeko adostasuna sustatuko da. Hala, proposamenak egiten direnean adostasuna lortzerik ez badago, bakoitzak bere botoa emango du eta hala jasota geratuko da aktan».*

Eta honela behar du:

*«Kontseilukide guztiek dute boto eskubidea, Tolosako Udaleko langileek izan ezik, baina proposamenak onartzeko adostasuna sustatuko da. Hala, proposamenak egiten direnean adostasuna lortzerik ez badago, bakoitzak bere botoa emango du eta hala jasota geratuko da aktan».*

Batzarkideek, adostutako emendakina bozkatu dute, eta bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal



Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** udal taldeek aurkeztutako emendakin adostua.

Ondoren, osoko bilkurako kideek bozkatu dute Herritarrak Batzordeak onartutako irizpena, onartutako zuzenketa sartu ondoren.

### **HERRITARRAK BATZORDE INFORMATIBOAREN 2021EKO URTARRILAREN 20KO IRIZPENA, ONARTUTAKO ZUZENKETA SARTUTA**

#### **AURREKARIAK**

2020ko azaroaren 14an, Udaleko Euskara teknikariak proposamen teknikoa egin zuen Euskararen Aholku Kontseilua arautuko duen erregelamendua sortzeko, Tolosako Udaleko Euskara plangintza-tresnak eragile eta kolektibo inplikatuekin hitzartzeko.

Beraz, lantaldearen izaera arautzeko beharra dago, herri administrazioaren eta gizarte eragile guztien artean hizkuntza politika partekatua bultzatzeko.

Erregelamendu honen bidez Tolosako Udalak honako helburu hauek lortu nahi ditu:

- Herritarrek gai publikoetan zuzenean edo ordezkarien bidez esku hartzeko eskubidea sustatzea.
- Herritar guztiak herriko bizitzan esku hartzeko tresnak garatzea.
- Udalaren eta gizarte eragile guztien artean hizkuntza politika partekatua bultzatzea.

Hori dena kontutan harturik, proposaturiko erregelamenduak udal Hizkuntza Politikan eragiteko aholku kontseilua xedatzen du, Udalaren zein herri eragile eta kolektibo inplikatuaren parte hartzea arautzeko.



Txostenaren arabera, erregelamenduaren proposamena interesdun guztiekin lantzeaz gain, webgunean argitaratu zen 15 lanegunez alegazioak jasotzeko. Alegazio epealdian, Galtzaundi Euskara Elkartearen eta Ataria egunkariaren iradokizun bana jaso zen, eta biak kontuan hartu dira Erregelamenduaren Proposamena egiteko. Ostean, Berdintasun eta Idazkaritza Sailek dagozkien txosten teknikoak egin dituzte.

## **AZTERKETA JURIDIKOA**

### **1.- Oinarri juridikoa eta Udalaren eskumena**

Autonomia Estatutua da hizkuntza-normalizazioa ordenatzen duen arau juridikoa, eta haren abiapuntua da, hain zuzen, hizkuntza bien berdintasun-estatusa ez dela guztiz berdina. Hortaz, normalizazioaren helburua da hizkuntza bien arteko erabateko berdintasuna lortzeko baldintzak sortzea, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren eskubideak bermatzeko.

Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 23., 25., 26. eta 27. artikuluetan bide ematen zaie botere publikoei euskara susta dezaten.

Eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen bidez, euskara toki-erakundeetan sustatzeko neurriak ezartzen ditu. Besteak beste, 6. eta 7. artikuluetan toki-erakundeei hizkuntza-autonomia zabala aitortzen zaie, eta, 17. artikuluan hizkuntza-normalizazioari lotutako eskumen propioei dagozkienak ezartzen ditu. Honela dio bere 17.1 26 apartatuak: "Udalerrien eskumen propioak: 1-lege honetan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udalerriek honako esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak: 26) Euskararen erabilera sustatzeko udal-planak idatzi, onartu eta kudeatzea, lege honen 7. artikuluan xedatutakoa gorabehera. Era berean, Legearen 7. artikuluan "Toki-erakundeen eta udalen eskumenak euskararen erabilerari dagokionez" atalean honako hau dio 2. apartatuan:

"Era berean, Udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, hartatik eratortzen diren ahalmen eta funtzioekin, bere lurralde eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena, horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz, edo beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatzeko aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz".



Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea garatzeko 2019ko azaroaren 19ko Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko dekretu garatu zen, non 59. artikuluan bereziki aipatzen den Euskara plangintza-tresnak eragile eta kolektibo inplikatuekin hitzartuta egin behar direla. Beti ere, parte-hartzearen, sinplifikazioaren eta efikaziaren printzipioak kontuan hartuta.

Horren oinarriak Konstituzioaren lehen xedapen gehigarria eta Euskadiren Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 6.2 eta 10.4 artikuluetan ezarritako eskumenak dira.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko entitateei aplikagarria zaien Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, bere Zioen Azalpenean, IV. apartatuan honela dio:

”Bistakoa da tokiko politikaren kalitate instituzionala hobetu beharra dagoela udal-gobernuek bere legitimitatea indar dezaten, zerbitzu-zorro iraunkor eta efizientea garatuz. Izan ere, udalak dira herritarrek arazoak konpontzeko jotzen duten lehendabiziko atea, eta udalaren legitimazio instituzionalaren oinarria da, neurri handi batean, herritarren beharrei erantzun egokia ematea eta herritarrei bizi kalitate egokia eskaintzea, eskubide guztiak baliatzeko aukera bermatuta; orien artean, gainera, hizkuntza eskubideak. Hala isladatzen da legeak toki-harremanetan kultura eta hizkuntza eredu propio baten alde egin duen aukera garbian ere, apustu sendoa egiten baitu euskararen iraunarazpen, finkapen eta garapenaren alde. Horregatik, euskara babestu eta normalizatzeko lana Euskal Herriaren hizkuntza berezkoa eta komuna denez, lehenik euskal botere publiko guztiei dagokie, baina euskal udalak bide-erakusle izan behar dira eginkizun horretan. Ondorioz, lege honen asmoa da aintzindari izatea prozesu batean non botere publiko guztiek apustu irmoa egin behar baitute euskararen alde, haren normalizazio desiratu eta erabateko garapena galarazten edo oztokatzen duten trabak erauziz. Toki-agintarien jarduerak eskatuko du neurri bereziak hartzea euskararen alde, egoera kaxkarragoan dagoen hizkuntza ofiziala baita. Izan ere, euskara faboratzeak bilatzen duena da, hain zuzen, herritarren artean benetako berdintasuna sustatzea, Hizkuntza Erregionalen edo Gutxituen Europako kartaren 7.2 artikuluan jasotakoaren zentzuan. Karta hori 1992ko azaroaren 5ean onetsi zen Estrasburgon eta indarrean dago gure ordenamentu juridikoan, 2001eko otsailaren 2an berretsi izan ondoren, -non bere helburu eta printzipioen artean esaten duen “hizkuntza erregionalaren edo gutxituen alde neurri bereziak hartzea, hizkuntza horien hiztunen eta gainerako biztanleen artean berdintasuna



sustatzera zuzenduta egotea eta beraien egoera berezia kontuan izatea bilatzea ez da hartuko hizkuntza hedatuagoen hiztunekiko diskriminazio-egintzat. Azken finean, lege honek bilatzen du euskal toki-erakundeei erabateko toki-autonomia bermatzea modu efektiboan esku har dezaten beren auzotarren interes eta asmoei eragiten dieten gaietan muga bakarra izanik, errespetatzea eraginkortasunaren, efizientziaren eta administrazio onaren printzipioak, eta, betiere, mendeturik aurrekontu egonkortasunari eta finantza-jasangarritasunari buruzko arautegi aplikagarriari, udal autogobernuko eredu garatuenekin koherentzian jokatzuz eta 1985eko urriaren 15eko Toki Autonomiari buruzko Europako Kartaren espirtuarekin eta printzipioarekin bat etorritz, karta hori indarrean baitago gure ordenamendu juridikoan 1988ko urtarrilaren 20an berretsi izan ondoren. Hori guztia Toki Autonomiari buruzko Europako karta lehentasunezko iturri bat delako toki-araubideari buruzko legeen integrazioarako eta interpretaziorako.

## 2.- Erregelamenduaren izapidetzea

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedaturikoa ikusirik, Erregelamendu honen izapidetzeak pauso hauek izango ditu:

- Hasierako onespena, osoko bilkurari dagokiona, aipatu Legearen 22.2.d) artikuluan araututakoaren arabera.
- Informazio publikoa eta interesdunen entzunaldiko epea, 30 lanegunekoa, erreklamazio eta iradokizunak aurkez ditzaten. Era berean, epe horretan entzunaldia emango zaie Kontseilua osatuko duten eragileei.
- Aurkeztutako alegazioak ebatzi eta Erregelamenduaren behin betiko testua onartzea, osoko bilkurari dagokiona.
- Informazio publikoko epean inolako erreklamaziorik ez badago, Erregelamendua behin betiko onartutzat joko dute.

## 3.- Organo eskuduna

Goian aipatu den moduan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) artikuluan xedatutakoaren arabera, Tolosako Udaleko Euskararen Aholku Kontseilua arautzen duen udal erregelamenduaren onespena udalbatzaren osoko bilkuraren eskumena da.





Tolosako Udaleko Herritarrak Batzordeak, 2021eko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

- **Aldeko botoak:** Nerea Letamendia, Begoña Tolosa, Izarne Iglesias, Jose Mari Villanueva, Aitzol Gartzia, Kristina Pelaez eta Olatz Artola.

Aurreko zuzenketa onartu ondoren, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

### IRIZPENA

**LEHENA.-** Hasierako onarpena ematea *Tolosako Udaleko Euskararen Aholku Kontseilua* arautzen duen Erregelamenduari, zuzenketa honekin:

Erregelamenduaren 7. artikuluan, honela dio:

*«Kontseilukide guztiak dute boto eskubidea, baina proposamenak onartzeko adostasuna sustatuko da. Hala, proposamenak egiten direnean adostasuna lortzerik ez badago, bakoitzak bere botoa emango du eta hala jasota geratuko da aktan».*

Eta honela behar du:

*«Kontseilukide guztiak dute boto eskubidea, Tolosako Udaleko langileek izan ezik, baina proposamenak onartzeko adostasuna sustatuko da. Hala, proposamenak egiten direnean adostasuna lortzerik ez badago, bakoitzak bere botoa emango du eta hala jasota geratuko da aktan».*

**BIGARRENA.-** Erregelamendu hau eta dagokion espedientea informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ditzaten. Era berean, epe horretan entzunaldia ematea Euskararen Aholku Kontseilua osatuko duten eragileei: Galtzaundi Euskara Elkarteari, Ataria eta 28 kanalari, Tolosako eskola, ikastetxe eta ikastolei, Tolosako kirol eta kultura elkarteei, eta UEMARI.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hauek argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta Tolosako Udalaren webgunean.



Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Beloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du hasierako onarpena ematea Tolosako Udaleko Euskararen Aholku Kontseilua arautzen duen erregelamenduari.

## **7. BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA GENEROAREN IKUSPEGIA TXERTATUA DUEN TOLOSAKO HIRI MUGIKORTASUN JASANGARRIRAKO PLANARI.**

### **Lurraldeko Batzorde informatiboaren 2021eko urtarrilaren 20ko irizpena.**

#### **1. AURREKARIAK**

- ◆ 2020ko apirilaren 24an, Ingurumeneko eta Landa eremuko teknikariak IM202000055 txostenean eta Hirigintzako AOTak 2020ko ekainaren 12an sinatutako EE20031 txostenean *Generoaren ikuspegia txertatua duen Tolosako Hiri Mugikortasun Jasangarrirako Planari* hasierako onespena emateko proposamena egin zuten.
- ◆ 2020ko uztailaren 21ean, Gobernu Batzarrak, akordio hau onartu zuen:

*LEHENA.- Hasierako onespena ematea Generoaren ikuspegia txertatuta duen Tolosako Hiri Mugikortasun Jasangarrirako Planari. Behin betiko onespena baldintza hauen pean geratuko da:*

- a) Eusko Jaurlaritzako ingurumen organoari kontsulta egingo zaio, ingurumen ebaluazio estrategikoa egin behar den argitzeko.*
- b) Udaleko Euskara Sailari kontsulta egingo zaio planak udalerriko egoera soziolinguistikoan izan dezakeen eraginari buruz.*

*BIGARRENA.- Espedientea jendaurrean jartzea, 45 egunez, eta iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki-taulan argitaratzea, interesdunek alegazioak aurkez ditzaten. Horrez gain, epealdi horretan, informaziorako eta herritarrek parte-hartzeko bideak irekiko dira.*



*HIRUGARRENA.- Behin betiko onespena emango duen organoa Udalbatzarra izan dadila proposatzea, kontuan izanik mugikortasun plan honek duen planifikazio izaera eta legegintzaldi honetatik harago izango duen eragina. Planaren inbertsio-aurreikuspenek izaera orientatzailea izango dute, eta ez die kalterik egingo inbertsio horiek gauzatzeko irapidetu beharreko gastuei edo bestelako zeinahi espedienteri.*

◆ Jendaurreko epealdia

- 2020ko abuztuaren 19an, GAOan argitaratu zuten Planaren Hasierako onespeneren iragarkia.

- Tolosako web orrian, modu irisgarrian mugikortasun planaren “banner” bat jarri da *Tolosa Badabil* izenburupean, mugikortasun plana osatzen duten dokumentuak denon eskura jarritz eta iradokizunak jasotzeko baliabideak jarritz.

- Iragarki taulan ere jarri zen 2020-11-5 arte.

◆ 2020ko irailaren 28an kontsulta bat bideratu zen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailera honako hau argitzeko:

Tolosako Mugikortasun Jasangarriaren Planak bere tramitazioan beharrezkoa ote zuen Ingurumen-ebaluazio estrategikoa egitea.

- 2020/10/20an, EJko Ingurumen Sailak erantzuna igorri zuen eta hau esan:

*“Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen jasotako prozeduraren bati ez bazaio hasiera ematen, organo honi ez dagokiola jardutea ingurumen-ebaluazio arloan”.*

Erantzuna aztertu eta gero, erabaki zuten ez dela beharrezkoa Mugikortasun planak Ingurumen-ebaluazio estrategikoa egitea.

◆ 2021eko urtarrilaren 18an, Euskara teknikariak txostena egin zuen eta adierazi plan hau aurrera eramateko EZ dela hizkuntza-Ingurumenaren azterlana egin behar, euskararen alorrean olanak izan dezakeen eragina oso txikia baita.

### **1.1.- Testuingurua**

Gizakiok erronka premiatsu eta atzeraezin bat dugu esku artean: atmosferara jaurtitako berotegi-efektuko gasen isurketak murriztea, bai eta osasunerako kaltegarriak diren gas kutsagarriak murriztea ere. Gure energia-eredua, erregai fosilen erretzean oinarri hartuta gehienbat, berotegi-efektuko gasen isurketen erantzule da, neurri handi batean, eta, ondorioz, klima-aldaketaren erantzule ere bai. Mugikortasun arloak Gipuzkoan NEG isuriaren % 30 inguru suposatzen du. Garraioak eta mugikortasunak aldaketa klimatikoan



du ten eragin garrantzitsua kontuan hartuta, EAEko Jasangarritasun Energetikoaren Legeak Mugikortasun planak egitera derrigortzen ditu udalak.

Gaur egungo mugikortasuna, orokorrean, motorizatutako ibilgailuen erabilera oinarritzen da, eta horrek, ingurugiro eta gizartearentzako arazo larriak ekartzen ditu, bai toki zehatzetan, bai mundu mailan. Mugikortasun jasangarriak ingurumenean, hirietan eta pertsonen bizitzan eragin kaltegarriak dituzten inpaktuak murriztu nahi ditu. Zentzu honetan, mugikortasun kultura berri batez mintzo gara, trafikoaz gain, garraio kolektiboan nahiz bizikletan dabiltzan pertsonak eta oinezkoak ere kontuan hartuko dituen.

Hiri Mugikortasun Jasangarriaren Plana (HMJP), jasangarritasun-irizpideei jarraituz, hiri bateko mugikortasuna antolatze ko planifikazio-tresna bat da. Europatik, estatutik eta erkidegotik sustatzen da udalek jasangarritasun plan hauek idaztea. Horien helburua da ingurumenarekiko errespetu handiena duten mugikortasun moduak sustatzea (oinez, bizikletan, garraio publikoan), motordun garraioa eta bereziki autoen erabilera arrazionalizatuz. Tolosako MJBPK hiriko mugikortasun-arazoak konpontze ko testuinguru orokorra finkatzen du, aurrez egindako lan eta prozesuetatik abiatuz, irisgarritasuna, autonomia, segurtasuna, aire eta soinu kutsadurak edota eskualdeko burua izatea bezalako funtzioak erlazionatuz. MJBPK jarduketa-programak egiten ditu ikuspegi estrategiko batetik, eta behar zehatzak asetze ko esku-hartzeak definitzen ditu.

Tolosan Mugikortasun jasangarria sustatu eta pertsonak erdigunean kokatzen dituen herri eredia bultzatzeko, Udalak 2019. urtean ekin zion Mugikortasun Plana garatzeari. Horretarako GA21 SLri esleitu zitzaion plana egite ko enkargua, 2018ko ekainaren 21ean formalizatu zen kontratuan.

## **1.2.- Herritarren parte-hartzea**

Denbora honetan, "Tolosa Badabil" lan dinamikaren baitan, hainbat partaidetza saio egin dira herritarrekin eta hainbat arlotako eragileekin, iritzi eta ekarpenak jasotze ko.

Gai honetan zeresana zuten pertsona eta eragileekin **mugikortasun mahaia** osatu zen. Bilera eta tailer guztiak irekiak izan dira eta deialdiak komunikabideen bidez zabaldu dira. Parte hartze ko modu presentzialez gain, beste kanal batzuk ere ireki dira, hala nola galdeketa eta inkestak eginez web orriaren bidez (tolosabadabil atala) eta udal eraikin nagusietan galdetegiak jasotze ko buzoi bat jarriaz. Elkarrizketa pertsonalak ere egin dira ikuspuntu guztiak barneratzen zirela ziurtatzeko.

Mugikortasun mahaia 3 aldiz elkartu da; lehenengo bilera, 2019ko urtarrilaren 28an; bigarrena, 2019ko martxoaren 11n; eta azkena, 2020ko urtarrilaren 29an, ekintza planaren aurkezpena egite ko.

Planaren lanketan Haurren hiri eta Eskola Agenda 21 programen bidez **gaztetxoenen nahiak eta eskaerak** ere kontuan hartu dira.



Plan honetan, **hainbat udal sailek hartu dute parte**. Zeharkako lan hau kontratazioa prestatzeko baldintza pleguekin hasi zen eta Ekintza Planaren azken zirriborroaren aurkezpenean parte hartuz amaitu zen. Prozesu honetan, Udaltzaingoak, Hirigintzak, Ingurumenak, Gazteriak, Kirolak, Gizarte Zerbitzuak eta Berdintasun Sailak hartu dute parte. **Ordezkarri politikoekin** ere, fase desberdinetan, plana landu eta kontrastatu da.

### **1.3.- Genero-ikuspegia**

Tolosako Hiri Mugikortasun Jasangarrirako Plana genero-ikuspegia ere kontuan hartuz landu da bai diagnosiaren fasean, behar eta arazoak kontuan hartuz, eta bai ekintza planean. Genero ikuspegia mugikortasunean txertatzean, pertsona guztien eguneroko beharrak kontuan hartzen dituen mugikortasuna garatzea lortuko dugu.

## **2. AZTERKETA TEKNIKOA**

### **2.1.- Planaren edukia**

Planak formalki izan beharreko edukiez gain, aspektu hauek ere bildu behar ditu 4/2019 LEGEak, otsailaren 21ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoak xedatutakoaren arabera:

- Helburuak
- Inbertsioen zenbatespena
- Urteko jarraipenen adierazleak
- Epeak
- Genero ikuspegia.
- Informazio publikoa eta herritarren parte-hartzea.

Generoaren ikuspegia txertatuta duen Tolosako Hiri Mugikortasun Jasangarrirako Plan (HMJP) honek aurreko atalak jorratzen ditu eta honako 2 dokumentu hauek osatzen dute:

- 1. dokumentua: Diagnostikoa
- 2. dokumentua: Ekintza Plana

Diagnostikoak gaur egungo egoera deskribatzen du, ahuldadeak eta indarguneak azpimarratuz eta arazo esanguratsuenak azaleratuz.

Ekintza planak, 8-10 urteko epean, lortu nahi diren helburuetara heltzeko 114 jarduera zehatz proposatzen ditu. Horietako jarduera bakoitzak deskribapen fitxa du eta bertan jarduerak duen aurrekontua, lehentasuna, epealdia eta beste adierazle hauek aurkitu



ditzakegu: pertzepzio soziala, bideragarritasun ekonomikoa eta jardueraren inpaktu positiboaren balorazioa.

Ekintza planean jarduera oso zehatzak planteatzen dira, baina adibide edo eredu gisa. Plan honen onarpenak ezin du suposatu planteatzen diren ekintzak ezaugarri tekniko eta neurri zehatzekin gauzatu behar direnik. Ulertu behar da ekintza bakoitzaren ezaugarri teknikoak idatzi beharko diren proiektuak definitu beharko dituztela, une horretan indarrean dauden arauak eta beste baldintzatzaile asko aintzakotzat hartuz, baina aldi berean, mugikortasun plan honekin lortu nahi diren helburuak eta Planak finkatzen dituen irizpideak errespetatuz.

## **2.2. Onartzen diren konpromiso eta irizpideak**

Tolosako Hiri Mugikortasun Jasangarrirako Plana (HMJP) onartzeak irizpide eta konpromiso hauek hartzea esan nahi du:

A) HMJPren lehen dokumentua, diagnostikoa konpartitzea, deskribatutako egoera bere eginez eta azaleratutako arazoak eta puntu beltzak konpontzeko konpromisoa hartuz.

B) Ekintza planak helburu orokor, arlokoak eta estrategikoak proposatzen ditu. Azken horiek hartuz, aurrekoak barneratzen dira, Planeko ekintzak 9 ildo estrategikotan sailkatzen dira. Plana onartzeak 9 ildo estrategiko horiek garatzeko konpromisoa hartzea esan nahi du.

B1- Oinez egindako joan-etorriak sustatzea, eta, horretarako, oinezkoen ibilbideen sare egokia diseinatu, irisgarritasun unibertsala eta konektibitatea ziurtatu, puntu beltzak desagerrarazi eta oinezkoak bizikletatik eta mugikortasun pertsonaleko beste ibilgailu batzuetatik babestu.

B2- Espazio publikoaren kalitatea hobetzea, eta, horretarako, oinezkoek lehenetsuna duten eremu erakargarri, eroso eta seguruak sortu. Horretarako, gaur egun, erdigunean, aparkaleku bezala erabiltzen diren espazioak berreskuratu edo kotxeentzako diseinatu ziren kale eta plazetan oinezkoen lehenetsuna eman.

B3- Bizikleten mugikortasuna sustatzea eta, horretarako, sare egoki bat sortu, lotuko dituen, modu seguruan, erosoan, zuzenean eta etenik gabe, ekipamendu nagusiak eta lantokiak auzoekin.

B4- Garraio publikoa sustatzea, egungo hiribusa zerbitzua hobetuz, beste garraio bideekin intermodalitatea bilatuz eta geltokietan irisgarritasun eta informazioa hobetuz.

B5- Planean proposatzen den bide-antolaketa berria onartu eta garatzea, pasoko trafikoa bide periferikoetatik desbideratuz eta erdigunean bizilagun eta banaketa



lanentzako mugikortasuna bermatuz. Aparkaleku periferikoak sortzea eta lurrazpiko aparkalekuen erabilera optimizatzea, erdiguneko trafikoa murriztu ahal izateko eta horrela, erdiguneko kaleak, jarduera komertzialarentzat erakargarriagoak bihurtuz

B6- Mugikortasun eredu jasangarri, berdinzale eta inklusiboak garatzeko parte-hartze prozesu dinamiko, garden eta jarraituak sortzea, eragile sozialen eta ekonomikoen inplikazioa lortzeko eta bestetik barne mailan zeharkakotasunez eta eraginkortasunez lan egiteko baliabide kudeaketa eta antolaketa egokia definitzea.

B7- Mugikortasun jasangarriaren alde hautua egiteak eredu kulturalak, ohiturak eta jokabideak aldatzea eskatzen du, horregatik sentsibilizazio ekimenak bultzatu behar dira, sektore tekniko eta politikoak aldaketa kultural honen buruan egon behar direlarik.

B8- Ibilgailuen eraginkortasuna sustatzea, alde batetik erregai fosiletako ibilgailuak elektrikoengatik aldatzera bultzatuz, karga puntuak sortuz eta bestetik kotxeak elkarbanatzeko ekimenak bultzatuz.

B9- Gertuko hirigintza-eredua sustatzea garapen berrietan eremu konpaktu eta multifuntzionalak bultzatuz eta bizitokiaren eta lantokiaren edo zerbitzuen arteko distantziak txikituz eta era berean, hiri eremuetatik urrun dauden eremuetan, saihestea garraio publiko kolektiboan, bizikletan edo oinez irisgarri ez diren garapen berriak.

C) Urbanizazio eta obretan, bai garapen berrietan bai berroneratzetan, Planean zehazten diren irizpide orokorrak eta espezifikoak aplikatzeko konpromisoa hartzea:

Eremu publikoan proposatutako esku-hartzeak premisa eta irizpide orokor hauekin bat etorri egin beharko dira:

C1- Mugikortasun berriaren diseinuan orain arteko hierarkia alderantzikatzea, alegia, lehentasunaren ordena honako hau izango da: lehenengo, oinezkoa; bigarren, bizikleta; hirugarren, garraio publikoa, eta zamalanak; eta azkenik, zirkulazio motorduna. Hau da, pertsonak erdigunean jarri.

C2- Eremu publikoaren banaketan oreka bidezkoagoa bilatzea oinezko eta kotxeen artean, kale bat erreferentzia gisa hartuta galtzadaren zabalerak, fatxaden arteko sekzioaren % 60 baino gutxiago izatea beti.

C3- Ibilgailu guztiak, bizikletak barne, bidegorrietatik edo galtzadatik joango dira arau orokor gisa, espaloia oinezkoen mugikortasunera egongo da bideratuta, eta egoteko eta jolaserako eremua ere izango da (sekula ez zirkulaziokoa). Galtzadan ibilgailu mota guztientzako baldintza egokiak bermatu behar dira, ahal den neurrian bizikletak bi norabideetan joatea baimenduz.



C4- Hiri eremuaren funtzionamendurako benetan beharrezkoa den trafiko bakarra egongo da, hau da: egoiliarren sarbidea, zamalanak, eta garraio publikoa. Beharrezkoa da hiri erdigunean azaleko errotaziozko plazen eskaintza mugatzea eta horren truke inguruan aparkalekuak gaitzea, aparkaleku bila, bueltaka egoten den trafikoa saihesteko.

C5- Eragileen parte-hartzea —bereziki herritarrena eta gizarte-erakundeena— ezinbestekoa da, proposamenak ondo egokituta egon daitezen eta partekatuak eta onartuak izan daitezen.

C6- Ekintza arinak eta kostu baxukoak aukeratu dira espazio txikien kolaborazio-diseinurako eta, herritarren inplikazioarekin, irtenbide berritzaileak probatzeko.

D) Planaren epealdian (8-10 urte), urtero, plana gauzatzen joateko inbertsioak egiteko konpromisoa.

Mugikortasun planak, ekintza guztiak garatzeko 7,2 milioi €-ko inbertsioa aurreikusten du (800.000 €, urteko). Kopuru horiek estimazio bat dira, ezin dutenak Udala konprometitu. Ekintza bakoitzak bere proiektua beharko du, aurrekontu zehatza kalkulatzeko. Bestetik, kontuan hartu behar da planteatzen diren ekintza gehienak kaleen eraberritzeekin edo konponketekin batera gauzatuko direla eta aurrekontu horien baitan txertatuko direla mugikortasuna hobetzeko ekintzak.

### **2.3. Txosten sektorialak**

Planaren behin-behineko onarpenean bi baldintza hauek ezarri ziren:

*1. Eusko Jaurlaritzako ingurumen organoari kontsulta egingo zaio, ingurumen ebaluazio estrategikoa egin behar den argitzeko.*

- 2020ko irailaren 28an, kontsulta bat bideratu zen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailera.

- 2020/10/20an, EJko Ingurumen Sailak erantzuna igorri zuen eta hau esan:

*“Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen jasotako prozeduraren bati ez bazaio hasiera ematen, organo honi ez dagokiola jardutea ingurumen-ebaluazio arloan”.*

Idatzi horren bitartez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak dio Udalak erabakitzen duela plan bati ingurumen ebaluazio prozedura hasi behar zaion edo ez. Kasu honetan, Mugikortasun Planaren izaera ikusiz eta ondorengo kontuan hartuz:

- Ez dagoela aurrekaririk, non horrelako plan bati ingurumen ebaluazio prozedura egiten zaion.





- Planaren onarpenak irizpide eta konpromisoak onartzea dakar eta ez proiektu konkretu eta definituak.

Erabaki da ez dela beharrezkoa Mugikortasun Planari ingurumen ebaluazio estrategikoa egitea.

*2. Udaleko Euskara Sailari kontsulta egingo zaio planak udalerriko egoera soziolinguistikoan izan dezakeen eraginari buruz.*

2021eko urtarrilaren 18an, Euskara teknikariak txostena egin zuen eta adierazi plan hau aurrera eramateko EZ dela hizkuntza-inpaktuaren azterlana egin behar, Euskararen alorrean planak izan dezakeen eragina oso txikia baita.

### **3. AZTERKETA JURIDIKOA**

*Hirigintzako AOTak 2020ko ekainaren 12an sinatutako EE20031 txostenaren arabera,*

#### **3.1- Aplikatu beharreko legeria**

Besteak beste, hauek dira aplikagarriak diren arau esanguratsuenak:

- 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa, 24. artikulua
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, herritarren parte-hartzeari buruzko 68. artikulua eta hurrengoak.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituenen – TAOAL–; 22.2.l), 47.2.n) eta 81. artikulua.
- 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen ebaluaketari buruzkoa, 6. artikulua.
- 179/2019 Dekretua, azaroaren 11koa, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa, planen hizkuntza inpaktuari buruz 49. artikulua eta hurrengoak.

#### **3.2- Plana onartzeko prozedura eta ezaugarriak**

a) Mugikortasun planei buruzko araudia.

4/2019 Legeak, EAeko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoak, **24. artikuluan** mugikortasun-planak arautzen ditu. Honako hauxe zehazten du:



## **24. artikulua Mugikortasun-planak.**

1. *Lege hau indarrean sartu eta bi urteko epean, 5.000 biztanletik gorako udalerriek hiri-mugikortasuneko plan bat onartu beharko dute.*

*Aurreko paragrafoan ezarritakoarekin estali gabe gelditzen den lurralde-zatian Foru-Aldundiek egingo dituzte hiriarteko mugikortasunari erantzuteko mugikortasun-planak.*

2. *Hiri-mugikortasuneko planek atal hauek izango dituzte:*

1. *zatia. Diagnostikoa; alderdi hauek jaso behar dira:*

*Lurralde- eta hirigintza-ereduak mugikortasunean duen eragina eta, orokorrean, garraioan duena.*

*Udalerrian dauden garraio-moduak, eta energiaren erabileran duten eragina. Diagnostiko horretan, besteak beste, hauek adierazi behar dira: garraibideak, edukierak, mugikortasun ez-motorizaturako ibilbide estrategikoak, ibilgailu mota bakoitzerako aparkatzeko lekuak, erregaiak kargatzeko sistema publikoak eta jende gehien biltzen duten ekonomia, lan edo zerbitzuetako jarduera-zentroak.*

2. *zatia. Neurriak; alderdi hauek izan behar ditu:*

*Ordezko erregaien karga-puntuak eta ordezko erregaeiz hornitzeko guneak jartzea jendearen eskura.*

*Garraio publikoa sustatzea.*

*Erabilera partekatuko ibilgailuak (car-sharing delakoa) sustatzea.*

*Garraio pribatua pixkanaka gutxituz joateko ordezko beste aukera batzuk ematea.*

*Salgaiak banatzeko logistika hobetzea.*

*Bizikleten erabilera eta, oro har, joan-etorri ez-motorizatuak bultzatzea.*

*Oinezkoentzako bakarrik diren eremu gehiago jartzea.*

*Ordezko erregaiak darabiltzaten ibilgailuak erabil daitezen sustatzea.*

3. *Planean argi eta garbi azaldu behar da **zer helburu** lortu nahi diren, plana egin duen administrazioak **zer inbertsio** hitzeman dituen, zein diren **urteko jarraipen-adierazleak** eta **zenbat denboratan** gauzatzea aurreikusi den, eta **4/2005 Legearen 46. artikuluan ezarritakoa bete** beharko du. Plana eta plana egiteko beharrezkoak diren azterketak gizonak eta emakumeak hiriarri eta espazioari ematen dioten erabilera desberdinak kontuan hartuta idatzi behar dira, eta generoen artean egon daitezkeen aldeak gutxitzeko proposamenak jaso behar dira, hiri integratzailea eta erantzunkidea lor dadin aurrera egiteko.*
4. *Hiri-mugikortasuneko **plana izapidetzeko**, lehendabizi, **hasierako onespena emango zaio**, eta, **ondoren, behin betikoa**; horretaz gain, **herritarrei informazioa emango zaiela** eta **haien parte-hartzea izango dela bermatu behar da**, **plana izapidetzea adosten denetik**. **Hasierako onespena eman***



*ondoren, planari aldaketa asko egiten bazaizkio, berriz jarri beharko da jendurrean. Bi kasuetan, alegazioak aurkezteko epea ezingo da 45 egun baino gutxiago izan.*

*Plana eta hura izapidetzen ari den bitartean planaren osagarri diren agiriak publikoak izango dira.*

5. Planak **bost urteko indarraldia** izango du; epe hori igarotakoan, planaren bidez **lortutako emaitzak ebaluatu behar dira**, eta helburuak eta neurriak aldatzeari ekin. Emaitzek publikoak izan behar dute.

b) Prozedura (24.4 artikulua)

- 1) Hasierako onespina.
- 2) Jendurreko informazioa, gutxienez 45 egunez, alegazioak aurkezteko.
- 3) Behin betiko onespina.

Prozeduran zehar **herritarren informazioa eta parte-hartzea bermatu da.**

Artikulu honek partaidetza eta herritarrei eman beharreko informazioa bi fasetan banatzen du. Lehenengoa, plana izapidetzen hasten denetik hasierako onespina eman arte, eta, bigarrena, hasierako onespentetik behin betikoa eman arte.

Lehenengo fasea: Plana egiten 2018/06/21ean hasi zen, kontratua formalizatu zen eguna kontuan hartuta. Ordutik aurrerantzen zehazten diren parte-hartze moduak eta kanalak erabili dira, bai digitalak, bai presentzialak. Lehenengo fase honetan parte-hartze eskakizunak egindakoarekin bete direla kontsideratzen da. Landutako dokumentuak, diagnostikoa eta ekintza plana Tolosabadabil atalean, helburu honetarako sortutako udal web atalean, egon dira denon esku.

Bigarren fasea: hasierako onespentetik behin betikoa eman arte 45 eguneko epe bat irekiko da alegazioak aurkeztu ahal izateko, dokumentu guztiak jendurreko informazio fase honetan web orrian egongo dira (Tolosabadabil atalean), eta fisikoki Hirigintza Sailean, paperean, kontsultatzeko aukera eman da. Tolosabadabil atalean ekarpenak jasotzeko kanala ireki da.

Planak bost urteko indarraldia izango du; epe hori igarotakoan, planaren bidez lortutako emaitzak ebaluatu behar dira, eta helburuak eta neurriak aldatzeari ekin. Emaitzek publikoak izan behar dute.

Behin betiko onartuko den Planak 8-10 urteko epealdia izango du. Hala ere, 5 urte igarotzen direnean, ebaluatu eta eguneratu egin beharko da.



### **3.3 Plana onartzeko organoari buruz**

*Hirigintzako AOTak 2020ko ekainaren 12an sinatutako EE20031 txostenaren arabera, Gobernu Batzordeak du plana behin betiko onartzeko eskumena, kontuan izanda Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, 21.1.s artikuluan araututakoa, eta 2019/1228 Alkatetza Dekretuan Gobernu Batzordearen alde ezarritako eskuordetza.*

Hala ere, Hirigintzako AOTak 2020ko ekainaren 12an sinatutako txostenean (EE20031) proposatu zuen Planaren behin betiko onarpena Udalbatzak ematea, kontuan izanik Mugikortasun Plan honek duen planifikazio izaera eta legegintzaldi honetatik harago izango duen eragina.

Horrela jaso zen 2020ko uztailaren 21ean Gobernu Batzarrak onartutako akordioan

*HIRUGARRENA.- Behin betiko onespena emango duen organoa Udalbatzarra izan dadila proposatzea, kontuan izanik mugikortasun plan honek duen planifikazio izaera eta legegintzaldi honetatik harago izango duen eragina. Planaren inbertsio-aurreikuspenek izaera orientatzailea izango dute, eta ez die kalterik egingo inbertsio horiek gauzatzeko izapidetu beharreko gastuei edo bestelako zehazki espedienteri.*

Tolosako Udaleko Lurraldea Batzordeak, 2021eko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

**Aldeko botoak:** Egoitz Sorozabal Iturain, Patxi Amantegi Zubiria, Jose Mari Villanueva Telleria, Andu Martinez de Rituerto, Ander Figuerido Zubiria eta Aitzol Garcia.

Beraz, hori dena ikusirik, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

### **IRIZPENA**

**Lehengoa.-** Behin betiko onespena ematea Generoaren ikuspegia txertatuta duen Tolosako Hiri Mugikortasun Jasangarrirako Planari.

**Bigarrena.-** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko Iragarki Taulan argitaratzea behin betiko onespeneren erabakia.



Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Beloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du behin betiko onespena ematea Generoaren ikuspegia txertatua duen Tolosako Hiri Mugikortasun Jasangarrirako Planari.

#### **8. BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA SAMANIEGO IKASTETXEKO LURSAILEAN (P4) ESTALPE BAT ERAIKI AHAL IZATEKO XEHETASUN AZTERLANARI.**

**Lurraldeko Batzorde informatiboaren 2021eko urtarrilaren 20ko irizpena.**

#### **AURREKARIAK**

- 2020ko martxoaren 30ean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Gipuzkoako lurralde ordezkariak "A.U.1 Santa Luziako g.1 hezkuntzarako hornikuntza komunitarioko lurzati"aren xehetasun azterlanaren 2. bertsioa (2020ko martxoa) aurkeztu zuen, bere onespenerako. Dokumentua Estudio ALDko Gurutze Aldanondo arkitektoak eta Igor Aldanondo ingeniariak idatzi dute.
- Udal teknikariaren errekerimenduz, 2020ko uztailaren 10ean, "03 Proiektatuko ordenazioa. Lerrokadurak eta sestrak" deritzan plano (2020ko ekaina) aurkeztu zuten, jatorrizko xehetasun azterlaneko zenbaki bereko plano ordezkatzeko duena.
- 2020ko uztailaren 13an, hasierako onespena emateko aldeko txosten teknikoa egin zuen udal arkitektoak.
- 2020ko uztailaren 23an, Tokiko Gobernu Batzarrerako akordio proposamena idatzi zuen udal teknikariak.
- 2020ko uztailaren 30ean, hasierako onspena eman zitzaion Alkatetza dekretuz.
- 2020ko abuztuaren 3an, Eusko Jaurlaritzari, Gurutze Aldanondo arkitektoari eta Igor Aldanondo ingeniariari jakinarazi zitzaion.
- 2020ko abuztuaren 6an, xehetasun azterlana Ur Agentziari bidali zitzaion.



- 2020ko abuztuaren 10 eta 11n, "Berria", "El Diario Vasco" eta "Tolosaldeko Ataria" egunkarietan argitaratu zuten iragarkia.
- 2020ko abuztuaren 12an, dokumentuaren ale bat aurkeztu zuten, paperean (Xehetasun Azterlan Bateratua).
- 2020ko abuztuaren 20an, hasierako onespeneren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuten, eta 2020ko urriaren 9tik 2020ko azaroaren 10era iragarkia jendaurrean egon zen Udaletxeko iragarki taulan.
- 2020ko azaroaren 17an, udal idazkariak ziurtatu zuen jendaurreko epealdian inork ez zuela alegaziorik aurkeztu.
- 2020ko abenduaren 19an, Ur Agentziaren eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren aldeko txostenak jaso ziren.

## AZTERKETA TEKNIKOA

Udal arkitektoak txostena egin zuen 2021eko urtarrilaren 4an, eta honako hau dio:

“ ...

- **Txostenaren helburua:**

*Txosten hau idazten da xehetasun azterlanari buruzko informazioa emateko.*

- **Xehetasun azterlanaren helburua:**

*Aurkeztutako proiektuaren arabera, Samaniego ikastetxeko goiko jolastokian euritik babesteko estalpe bat eraiki nahi dute. Gaur egungo jolastokiaren erabilera mantenduko da.*

*Estalpe hori egiteko obra-lizentzia eskatu baino lehen, hirigintza ezaugarriak (lerrokadurak, altuera...) zehaztu behar dira, eta horretarako, xehetasun azterlan hau izapidetu behar da.*

- **Hirigintza araudia:**

*Tolosako Plan Orokorren arabera, lursail hori "1. Santa Luzia. Irakaskuntza ekipamendua" izeneko hirigintza esparruan dago. Esparru horren arau partikularrek diotenez, bere kalifikazio globala "G.00. Ekipamendu komunitario sistema orokorra" da eta ordenazio xehatuari dagokionez, "g.00. Ekipamendu komunitarioa" kalifikazioa dauka eta aurretik indarrean zegoen eremu horren planeamendua finkatzen da. Hain zuzen ere:*

- 1989: Tolosako Arau Subsidiarioak
- 2001/12/04: "Tolosako planeamenduko Arau Subsidiarioetako zenbait alderdiren aldaketa, Santa Luzia T.2 eremuan".



- 2005/07/26: "T.2. Santa Luzia eskola ekipamenduen guneari dagozkion Tolosako Arau subsidiarioen elementuen aldaketa". (B.5.1 T.2/2004.1 espediente).
- 2005/10/03: "Tolosako T.2 areari "Santa Luzia" dagokion hiri antolaketa arauen aldaketari agiri osagarria 2005.7.26ko Diputatuen kontseiluaren erabakiari egokitzeko"

Beraz, gaur egun indarrean dagoen ordenazio xehatua 2005eko Arau Subsidiarioen aldaketan zehaztuta dago. Besteak beste, "III.3. zonifikazio xehatua" izeneko planoan eta memoriaren helburu eta zehaztopen kodean.

Ordenazio xehatuaren arabera, baldintza hauek bete behar dira:

"e) CONDICIONES GENERALES DE LA EDIFICACIÓN:"

- "Altura máxima: 10 m. a alero, medidos desde la rasante principal de acceso al edificio a la altura de la planta baja. Excepcionalmente y previa justificación de su necesidad, el Ayuntamiento podrá permitir una mayor altura o un perfil edificatorio superior al establecido con carácter general, por ejemplo para edificios singulares como gimnasios, talleres para formación profesional, etc..."
  - **Xehetasun azterlanean, gehieneko altuera 10,50 metrokoa izango da, gaur egungo jolastokiko sestratik neurtuta. Izan ere, isuri bateko estalpea proposatzen da. Horrela, errepidera ematen duen fatxadako gehieneko altuera 10,50 izango da, eta gaur egungo eraikinera ematen duen fatxadan 8,40 m. Jolastoki bateko estalpea izanda, gehieneko altuera 0,50 metro altxatzea justifikatuta dago. "3" izeneko planoan (2020ko ekaineko plano) estalpearen profila zehazten da.**
- "Cualquier nueva edificación respetará un retiro mínimo de 5 m, respecto al viario público y de 3 m. respecto al límite de parcela."
  - **Xehetasun azterlanean, lerrokadura hauek ez dira betetzen gaur egungo jolastokiaren barruko neurriak mantendu ahal izateko, eta horren ondorioz, gaur egungo erabilera mantentzeko proposatutako lerrokadurak lursailaren barruan mantentzen dira, eta ez da eragozpenik ikusten hirigintza ikuspuntutik. "3" izeneko planoan gehieneko lerrokadurak eta hegialak zehazten dira.**
- "Se permite la construcción de nuevos edificios sobre pistas deportivas, garantizando la reposición de los espacios deportivos ocupados".
  - **Jolastokiaren ordezkapena ez da beharrezkoa, bere erabilera (futbol zelaia) mantenduko delako.**

"g) CONDICIONES DE ACTUACIÓN:"

- "Se exigirá un Estudio de Detalle para que las actuaciones edificatorias que se desarrollen sobre actuales pistas deportivas. Estos Estudios de Detalle se acompañarán de los compromisos públicos y plazos de reposición de estos espacios deportivos dentro del ámbito, ya sea en la parcela P7 o en la parte trasera del Polideportivo Uzturpe".



- **Dagokion xehetasun azterlana izapidetu da, eta ez da beharrezkoa jolastokia ordezkatzea.**

**Kontuan izanda xehetasun azterlanak antolamendu xehatuak agindutako sestrak eta lerrokadurak adierazi, zuzendu edo osatu ditzakeela (ikus 2/2006 lurzorua legeko 73. artikulua), eta proposatutako aldaketak justifikatuta daudela, ez da eragozpenik ikusten xehetasun azterlana onartzeko.**

- **Txosten sektorialak:**

- **UR AGENTZIAREN TXOSTENA:**

Xehetasun azterlanaren eremua Pisuaga erreka (Kisuagaerreka) zaintza eremuan sartzen da. 2020/08/06n dokumentua Ur Agentziari bidali zitzaion dagokion txostena egin zezan.

2020/12/09an Ur Agentziaren eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren aldeko txostenak jaso ziren. Dena den, gogorarazten da obra-lizentzia eman ahal izateko Ur Agentziaren baimena ere beharrezkoa dela.”

## **AZTERKETA JURIDIKOA**

Udaleko Hirigintzako AOTak txostena egin zuen 2020ko irailaren 23an, eta honako hau dio:

“ ...

Prozedurari buruz, 2/2006 Legeak 98. artikuluan honako hau ezartzen du, laburbilduz:

- 1) *Hasierako onspena. Alkatetzari dagokio, bat etorrira 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, 21.1.j artikuluan ezarritakoarekin, baina Tolosako Udalari dagokionez, eskuduntza hori Tokiko Gobernu Batzordeari eskualdatu zitzaion 2019/1228 Alkatetza Dekretuaren bidez.*
- 2) *Jendaurrekoa informazioa 20 egunez. Horretarako, iragarkiak argitaratuko dira GAOn, ohiko prentsan eta Udaleko euskarrietan.*
- 3) *Behin betiko onspena. Udalbatzarrari dagokio, 7/1985 Legearen 22.2.c artikuluari jarraituz.”*





Tolosako udaleko Lurraldea Batzordeak, 2021eko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

**Aldeko botoak:** Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Patxi Amantegi Zubiria, Jose Mari Villanueva Telleria, Andu Martinez de Rituerto, Ander Figuerido Zubiria eta Aitzol Garcia.

Beraz, hori dena ikusirik, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

### IRIZPENA

**LEHENENGOA.-** Behin betiko onespena ematea, Samaniego ikastetxeko lursailean (P4) estalpe bat eraiki ahal izateko xehetasun azterlanari (2020ko abuztuan aurkeztutakoari).

**BIGARRENA.-** Aurreko erabakian aipatzen den xehetasun azterlana Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, Hirigintza Plangintzako Administrazio Erregistroan gordailutu dezan, argitaratu baino lehen.

**HIRUGARRENA.-** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea behin betiko onspenaren erabakia, onartutako dokumentuaren arau-zehaztapenekin batera, eta xehetasun azterlana Hirigintza Plangintzako Administrazio Erregistroan jaso izanaren agiria.

**LAUGARRENA.-** Behin betiko onartzeko erabakia argitaratzea Gipuzkoako Lurralde Historikoan hedapen handiena duen egunkarian edo egunkarietan.

**BOSGARRENA.** Ebazpen hau jakinaraztea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Gipuzkoako lurralde ordezkari eta dokumentuaren idazleei (Gurutze Aldanondo eta Igor Aldanondo).

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.



Beraz, udalbatzak aho batez **onartu** du behin betiko onespena ematea Samaniego ikastetxeko lursailean (p4) estalpe bat eraiki ahal izateko xehetasun azterlanari.

**9. BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA ORIXE INSTITUTUAREN LURSAILEAN (P2) INSTITUTU BERRIA ERAIKI AHAL IZATEKO XEHETASUN AZTERLANARI.**  
**Lurraldeko Batzorde informatiboaren 2021eko urtarrilaren 20ko irizpena.**

**AURREKARIAK**

- 2020ko irailaren 11n, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Gipuzkoako lurralde ordezkariak "T.2 Santa Lutzia hornikuntza guneko P2 lurzatia"ren xehetasun azterlanaren 2. bertsioa (2020ko abuztua) aurkeztu zuen, bere onespenerako. Dokumentua Uzcanga Arquitectos estudioko Luis Uzcanga arkitektoak idatzi du.
- 2020ko irailaren 21ean, hasierako onespenerari buruzko txosten teknikoa egin zuen udal arkitektoak.
- 2020ko irailaren 22an, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak xehetasun azterlanaren kopia bat aurkeztu zuen, paperean (2020ko abuztuko alea).
- 2020ko irailaren 23an, Tokiko Gobernu Batzarrerako akordio proposamena idatzi zen.
- 2020ko irailaren 29an, Gobernu Batzarrak erabaki zuen xehetasun azterlanari hasierako onespena ematea.
- 2020ko urriaren 8an eta 9an, hasierako onespeneraren erabakia dokumentuaren egileari, Luis Uzcanga arkitektoari, eta Eusko Jaurlaritzari bidali zien Udalak.
- 2020ko urriaren 16an, hasierako onespeneraren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera bidali zen.
- 2020ko urriaren 20an, "Berria", "El Diario Vasco" eta "Tolosaldeko Ataria" egunkarietan argitaratu zuten iragarkia. 2020ko urriaren 26an, hasierako onespeneraren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuten. 2020ko urriaren 16tik 2020ko azaroaren 14ra iragarkia Udaletxeko iragarki taulan egon zen jendaurrean.
- 2020ko azaroaren 24an, udal idazkariak ziurtatu zuen jendaurreko epealdian inork ez zuela alegaziorik aurkeztu.
- 2020ko abenduaren 9an Ur Agentziaren eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren aldeko txostenak jaso ziren.



## AZTERKETA TEKNIKOA

Udal arkitektoak txostena egin zuen 2020ko abenduaren 28an, eta honako hau dio:

“ ...

- **Txostenaren helburua:**

*Txosten hau idazten da xehetasun azterlanaren BEHIN BETIKO ONARPENARI buruzko informazioa emateko. Txosten honetan, dokumentu horren azken bertsioa informatuko da. Hau da, 2020ko abuztuan idatzitako alea.*

- **Xehetasun azterlanaren helburua:**

*Aurkeztutako dokumentuaren arabera, gaur egungo eraikina eraitsi egingo dute eta eraikina berreraiki egingo dute. Eraikin berriak ez ditu mantenduko gaur egungo hirigintza ezaugarriak (lerrokadurak, bolumena, altuera eta profila). Hori dela eta, beharrezkoa da xehetasun azterlan bat onartzea eraikina berreraikitze obra-lizentzia eman baino lehen.*

- **Aurkeztutako dokumentazioa:**

2020ko abuztuko dokumentuak honako eduki hau dauka:

*“Estudio de detalle. Parcela P2 del Area de equipamiento T.2. Santa Lucia. Agosto 2020”:*

### 1. INFORMACIÓN.

#### 1.1 ANTECEDENTES INFORMACIÓN PREVIA.

#### 1.2 OBJETO.

#### 1.3 PLANEAMIENTO URBANÍSTICO VIGENTE.

##### 1.3.1 PLAN GENERAL. NORMA PARTICULAR DEL ÁMBITO URBANÍSTICO

##### 1.3.2 NORMAS SUBSIDIARIAS DE PLANEAMIENTO DE TOLOSA RELATIVA AL AREA T.2 «SANTA LUCIA». (GHI-031/05-P05-A).

#### 1.4 CARACTERÍSTICAS DEL SOLAR Y SU RELACIÓN CON EL ENTORNO URBANO.

#### 1.5 CONDICIONES INICIALES A LA ORDENACIÓN DE LA PARCELA.

#### 1.6 DESCRIPCIÓN DE LA ORDENACIÓN.

##### 1.6.1 Ordenación general. Volumetría del nuevo edificio y su relación con el entorno.

##### 1.6.2 Accesos al centro y relación entre los distintos espacios exteriores .

##### 1.6.3 Circulaciones internas y externas.

##### 1.6.4 Redes y acometidas.

### 2 CONDICIONANTES NORMATIVOS. ORDENACION PORMENORIZADA.

#### 2.1 CONDICIONES GENERALES DE LA EDIFICACIÓN QUE AFECTAN A LA PARCELA P2.

#### 2.2 CONDICIONES PARTICULARES DE LA EDIFICACIÓN, QUE AFECTAN A LA PARCELA P2.

#### 2.3 CONDICIONES AMBIENTALES.

### 3 CONDICIONANTES NORMATIVOS.

#### 3.1 Uso: Docente.

#### 3.2 Ocupación. Superficie suelo.



- 3.3 Superficie edificio . m2 Techo.
- 3.4 Superficie pista deportiva cubierta: m2 Techo.
- 3.5 Condiciones de Edificación Y Urbanización.
  - 3.5.1 Rasantes.
  - 3.5.2 Alineaciones y retiros.
  - 3.5.3 Perfiles.
  - 3.5.4 Vuelos.
  - 3.5.5 Pasarela.
  - 3.5.6 Zonas verdes.
  - 3.5.7 Aparcamiento.

#### 4. PLANOS.

### LISTADO DE PLANOS

INFORMACION (INF)			DINA1	DINA3
01	INF.01	Modificación de elementos de las normas subsidiarias de Tolosa Referente al Area de Equipamiento Escolar T.2 Santa Lucia		
		PLANO III.3 ZONIFICACIÓN PORMENORIZADA	1/1000	-
02	INF.02	Situación	1/1250	1/2500
03	INF.03	Planta Estado actual	1/250	1/500
04	INF.04	Planta Proyecto IES ORIXE	1/250	1/500
05	INF.05	Planta Superpuesto	1/250	1/500
06	INF.06	Sección Superpuesto	1/125	1/250
ORDENACION (A)			DINA1	DINA3
07	ORD.01	Ordenación General. Alineaciones y rasantes	1/250	1/500
08	ORD.01	Ordenación General. Acotado	1/250	1/500
09	ORD.02	Sección transversal AA'	1/100	1/200
10	ORD.03	Sección transversal BB'	1/100	1/200
11	ORD.04	Sección Longitudinal CC'	1/100	1/200
INFORMACION. PROYECTO EDIFICIO EXISTENTE (INF)			DINA1	DINA3
12	INF.07	A4_PLANTAS_NIVELES +0.00 +1.50	1/200	-
13	INF.08	A5_PLANTAS_NIVELES +3.00 +4.50 +5.50	1/200	-
14	INF.09	A6_PLANTAS_NIVELES +6.00 +7.10 +7.50 +8.00 +8.30	1/200	-
15	INF.10	A7_PLANTAS_NIVELES +7.10 +10.50	1/200	-
16	INF.11	A8_PLANTAS_NIVELES +13.50	1/200	-
17	INF.12	A11_SECCIONES	1/200	-
18	INF.13	A12_SECCIONES	1/200	-

#### 5. INFOGRAFÍAS.

- **Hirigintza araudia:**
  - **Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) - (GAO 2009-03-31).**

Tolosako Plan Orokorraren arabera, lursail hori "1. Santa Luzia. Irakaskuntza ekipamendua" izeneko hirigintza esparruan dago. Esparru horren arau partikularrek diotenez, bere kalifikazio globala "G.00. Ekipamendu komunitarioko sistema orokorra" da, eta ordenazio xehatuari dagokionez, "g.00. Ekipamendu komunitarioa" kalifikazioa dauka, eta aurretik indarrean zegoen eremu horren planeamendua finkatzen da. Hain zuzen ere:



- 1989: Tolosako Arau Subsidiarioak.
- 2001/12/04: "Tolosako planeamenduko Arau Subsidiarioetako zenbait alderdiren aldaketa, Santa Luzia T.2 eremuan".
- 2005/07/26: "T.2. Santa Luzia eskola ekipamenduen guneari dagozkion Tolosako Arau subsidiarioen elementuen aldaketa". (B.5.1 T.2/2004.1 espedientea).
- 2005/10/03: "Tolosako T.2 areari "Santa Luzia" dagokion hiri antolaketako arauen aldaketari agiri osagarria 2005.7.26ko Diputatuen kontseiluaren erabakiari egokitzeko"

Beraz, gaur egun indarrean dagoen ordenazio xehatua 2005eko Arau Subsidiarioen aldaketan zehaztuta dago. Besteak beste, "III.3. zonifikazio xehatua" izeneko planoan eta memoriaren helburu eta zehaztapen kodean.

Ordenazio xehatuaren arabera, baldintza hauek bete behar dira:

e) ERAIKITZEKO BALDINTZA OROKORRAK.

Sestra gaineko gehieneko profila: erdisotoa + behe solairua + bi solairu.

Gehienezko garaiera: teilatu-hegaletik 10 m, eraikinean sartzeko sestra nagusitik neurtuta, behe solairuaren parean.

Salbuespen bezala, eta horretarako beharra justifikatu ondoren, Udalak finkatuta dagoena baino eraikin-profil edo garaiera handiagoa baimendu ahal izango du eraikin bereziak egiteko, hala nola, gimnasioak, lanbide-heziketako lantegiak, etab.

- **Xehetasun azterlanean, eraikin berriaren profil eta altuera maximoa zehazten dira, eraikin berriaren beharretara egokituta. Horrela, goiko sestran (+ 101,80 m), 13,20 metroko altuera maximoa ezartzen da, beheko solairua gehi bi solairu eraiki ahal izateko. Horrela, solairu bakoitzeko barruko altuera librea 3,90 metrokoa izan ahalko da. Aldiz, beheko sestran (+ 94,00 m) eraikinaren altuera maximoa 12,80 metroko izango da hegoaldeko bazterrean, eta 7,80 metrokoa, iparraldeko aldean. Programa berriaren antolaketak ondorioztatu ditu zehaztutako bolumen eta altuera horiek. Hori dela eta, hirigintza ikuspuntu batetik ez da eragozpenik ikusten proposatzen den profila baimentzeko.**

Sotoak egin daitezke, baina bertan jarri daitezkeen erabilerak etengabe pertsonak hartzen ez dituztenak izango dira, hala nola, aparkalekuak, biltegiak, instalazioak, etab. Sotoan eraikitako azalera ez da aintzat hartuko gehienezko eraikigarritasuna kalkulatzeko garaia.

- **Sotoak egingo dira, baina dokumentu honetan ez da zehazten guneen erabilerarik, eta zehaztasun hori obra-lizentziaren proiektuari dagokio. Beraz, obra-lizentziaren espedienteaz aztertuko da.**

Oro har, besterik dion argibiderik ezean, lehendik dauden eraikinak beste batzuekin ordezkatu daitezke aurreko oinplano-okupazio berari eutsiz gero eta gehienez baimendua dagoen profila bateaz.

Eraikin berririk eginez gero, bide publikotik 5 m-ko atzerapena eta lursailaren mugatik 3 m-ko tartea utzi beharko da. Lehenengo eraikinak ordezkatzuz gero, distantzia horiek utzi beharko dira,



*baldintza hori betetzea ezinezkoa ez bada behintzat; hori gertatuz gero, oraingo oinplano-okupazio berari eutsi beharko zaio.*

**→ Bide publikotik 5 metroko distantzia eta lursailaren mugatik 3 metrokoa mantentzen dira.**

*Eraikuntza proiektuek - bai, eraikitzen diren eraikin berriek, bai daudenak aldatzeko egiten direnek - N-1 autobiak sortzen duen zarata kontuan hartuko dute; horrela, zaratak hainbeste kaltetzen ez dituen erabilerak jarriko dira errepidetik hurbil, eta isolamendu akustikoa ahal bezainbeste zainduko da.*

**→ Isolamendu akustikoaren gaia obra-lizentziaren espedientean aztertuko da.**

*Kirol-pistetan eraikinak egin daitezke, hartzen diren kirol-espazioen ordez beste espazio batzuk sortzen badira.*

**→ Kasu honetan, gai hori ez da aztertu behar.**

f) ERAIKITZEKO BALDINTZA BEREZIAK.

(...)

*P2: Egungo eraikina ordezkatu egingo da, instalazioen funtzionaltasunaren baldintzak hobetze aldera.*

**→ Beraz, 2005. urtean jada aurreikusita zegoen eraikinaren ordezkapena.**

*Eraikin berriak oraingoak baino oinplano-okupazio txikiagoa izango du, eta eremu honetarako baimenduta dagoen gehieneko profiletik gertuago egongo da. Oinplano-okupazio berriak gutxieneko atzerapen hauek utzi beharko ditu: 5 m-koa bide publikotik, 3 m-koa lursailaren mugatik eta 50 m-koa autobidetik.*

**→ Ordenazio planoaren arabera (ORD.01), eraikin berriko oinplano-okupazioa gaur egungoa baino txikiagoa da, eta gehieneko lerrokadura hauek beteko ditu:**

- 5 m-koa, bide publikotik (ekialdeko errepidetik).
- 3 m-koa, lursailaren mugatik.

**→ Ipar-mendebaldeko bazterrean ez da betetzen autobidearekiko 50 metroko gutxieneko distantzia. Izan ere, kirol pista irekiaren zati bat N-1 errepidetiko babes eremuaren barruan sartzen da. Ikusita xehetasun azterlan hau Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Sailak informatu behar duela, Departamentu horrek esaten duena onartuko da. Ildo horretan, 2020/09/08an jaso zen txostena aldekoa denez, ez da inongo eragozpenik ikusten gai honetan.**

**→ Ipar ekialdeko fatxada zati batean 2 metroko gehieneko hegala baimentzen da. Hegal hori lursailaren mugatik 3 metroko eremuaren barruan sartzen da. Dena den, zati horretan, aldameneko lursailean eraikinik ez dagoenez, ez da eragozpenik ikusten hegal zati hori baimendu ahal izateko.**

**→ Orixe institutuak (DBH) Gorosabel eraikinarekin (Batxilerra) hainbat zerbitzu amankomun partekatuko ditu. Hori dela eta, hego ekialdeko fatxadan pasarela bat proposatzen da Gorosabel eraikinarekin konektatzeko. Ez da eragozpenik ikusten pasarela hori baimentzeko.**



*Eraikin berriak gaur egun eraikita dagoen azalera garatu ahal izango du bere antolamendu berrian, eta azalera hori handitu ahal izango du, sortzen diren beharren arabera.*

- ***Beraz, eraikin berriaren azalera handitzea baimenduta dago, sortzen diren beharren arabera. Gainera, hezkuntza ekipamendua izanda, sortuko den eraikigarritasuna fisikoa izango da, eta ez hirigintza-eraikigarritasuna. Hala ere, xehetasun azterlanaren arabera, ez da gaur egungo eraikigarritasuna handituko.***

*Eraikin zaharra berriarekin ordezkatzeko denean, bide publikoa eta P7 lursaila lotzen dituen sarrera libreko oinezkoentzako lotune egingo da, lursail horretan geroago egin daitezkeen garapenei erantzuteko.*

- ***Gaur egun P7 izeneko lursaila garatu gabe dago eta ez dago aurreikusita bere garapena epe labur batean. Xehetasun azterlanean, P2 izeneko lursailaren barruan aurreikusten dira eskailera batzuk, goiko kota (eraikineko sarrera) eta behekoa (P7 lursailera doana) lotzeko. Eskailera horiek eraikin berriko lerrokatutatik kanpo eraikiko dira, eta behar izanez gero, oinezkoentzako lotune hori bermatu daiteke.***

*Egungo eraikina ordezkatzeko, lursailaren barruan 30 aparkaleku egin beharko dira gutxienez, baina behar izanez gero leku gehiago ere sortu litezke.*

- ***Aurkeztutako xehetasun azterlanean, 30 plazako aparkaleku bat aurreikusten da goiko plataforman (+101,80 metroko sestran, ekialdean).***

(...)

#### *h) URBANIZATZEKO BALDINTZAK.*

(...)

*Espazio libre partzelatueta jarduketak egiteko, dagokion obra-proiektua aurkeztu beharko da:*

*- Lursailen barruan dauden aparkalekuak behar bezala markatuko dira, gaur egungo gehiegizko okupazioa saihesteko. Era berean, ezinduentzako eta larrialdietarako (suhiltzaileak, ambulantiak, etab.) lekuak egokituko dira.*

*- Zuhaitzak jarriko dira, eremuaren irudia eta ingurumen-baldintzak hobetu, ezponda-eremuko lurra babestu eta inguruko eremu landatarrarekin bat egiteko.*

- ***Urbanizatzeko baldintza horiek obra-lizentziaren proiektuan beteko eta justifikatuko dira.***

#### *i) INGURUMEN BALDINTZAK.*

- ***Arau Subsidiarioaren aldaketan ingurumen baldintzak zehazten dira i) atalean eta Ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioari erreferentzia egiten dio. Aurkeztutako xehetasun azterlanean, zarataren kontua bakarrik***



***aipatzen da. Dena den, ingurumen baldintza horiek eraikineko obra-  
lizentzian aztertu behar dira.***

***Kontuan izanda xehetasun azterlanak antolamendu xehatuak agindutako sestrak  
eta lerroakurak adierazi, zuzendu edo osatu ditzakeela (ikus Lurzoruaren 2/2006  
Legearen 73. artikulua), eta proposatutako aldaketak justifikatuta daudela, ez da  
eragozpenik ikusten xehetasun azterlanari behin betiko onarpena eman ahal  
izateko.***

- **Txosten sektorialak:**

- **FORU ALDUNDIKO BIDE AZPIEGITURETAKO SAILAREN TXOSTENA:**

*Xehetasun azterlanaren eremuko mendebaldeko zati bat N-1 errepideko babes eremuan  
sartzen da (50 metroko distantziaren barruan). Beraz, xehetasun azterlanaren  
dokumentua Bide Azpiegituretako Sailari bidali behar zaio, dagokion txostena egin dezan.*

*2020/09/08an Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak egindako aldeko  
txostena jaso zen (OFI-C-2020-0860). Hortaz, alde horretatik ez da eragozpenik ikusten  
behin betiko onarpena eman ahal izateko.*

*Bestalde, erakinaren obra lizentziarako ez da beharrezkoa Foru Aldundiaren baimena  
eskuratzea. Izan ere, salbuetsita dago obra hiri lurzoruan egingo delako, eta N-1  
errepideko ertzetik eta 18 metroko lerrotik kanpo dagoelako. (Ikus 77.4.c artikulua,  
2006ko ekainaren 6ko 1/2006 FORU DEKRETU ARAU-EMAILEA, Gipuzkoako Errepide  
eta Bideen Foru Arauaren testu bateratua onartzekoa).*

- **UR AGENTZIAREN TXOSTENA:**

*Xehetasun azterlanaren eremuko hegoaldeko zati bat Kisuaga (Pisuaga) erreka  
zaintza eremuan sartzen da (100 metroko zerrendaren barruan). Beraz, xehetasun  
azterlanaren dokumentua Ur Agentziari bidali behar zaio dagokion txostena egin dezan.  
Ur Agentziaren aldeko txostena eskuratu behar da behin betiko onarpena eman baino  
lehen.*

*2020/08/06an Ur Agentziaren erregistro telematikoan sartu zen (IU-G-2020-0035  
espediente).*

*2020/12/10ean Ur Agentziaren eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren aldeko  
txostenak jaso ziren. Hala ere, txosten horietan eraikinaren obra lizentziarako kontuan  
hartu beharreko gai batzuk aipatzen dira:*

1. "Udalak, hornidura-erakunde kudeatzailearen (Gipuzkoako Ur Kontsorzioa-Gipuzkoako Urak) ziurtagiriaren bidez, ziurtatu behar du azpiegitura hidraulikoa nahikoa dela proiektatutako garapena hornitzeko, bai eta hodi-biltzaileen sarea behar bezala





*dimentsionatzen dela eta Uraldeko HUAko (Aduna) araztegiaren ekipamendu-ahalmena ere, sistema horretara konektatu beharko baita garapena”.*

2. *“Xehetasun azterketan jasota dauden eta zaintza-eremuaren barruan dauden jarduketa guztiak Ur Agentziaren nahitaezko baimen administratiboa beharko dute”*

### **AZTERKETA JURIDIKOA**

Udaleko Hirigintzako AOTak txostena egin zuen 2020ko irailaren 23an, eta honako hau dio:

“ ...

*Prozedurari buruz, 2/2006 Legeak 98. artikuluan honako hau ezartzen du, laburbilduz:*

- 1) *Hasierako onespena. Alkatetzari dagokio, bat etorrira 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, 21.1.j artikuluan ezarritakoarekin, baina Tolosako Udalari dagokionez, eskuduntza hori Tokiko Gobernu Batzordeari eskualdatu zitzaion 2019/1228 Alkatetza Dekretuaren bidez.*
- 2) *Jendurrekoa informazioa 20 egunez. Horretarako, iragarkiak argitaratuko dira GAOn, ohiko prentsan eta udal euskarrietan.*
- 3) *Behin betiko onspena. Udalbatzarrari dagokio, 7/1985 Legearen 22.2.c artikuluari jarraituz.”*

Tolosako Udaleko Lurraldeko Batzordeak, 2021eko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

**Aldeko botoak:** Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Patxi Amantegi Zubiria, Jose Mari Villanueva Telleria, Andu Martinez de Rituerto, Ander Figuerido Zubiria eta Aitzol Garcia.

Beraz, hori dena ikusirik, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:



## IRIZPENA

**LEHENENGOA.-** Behin betiko onespina ematea, "T.2 Santa Lutzia hornikuntza guneko P2 lurzattia"ren xehetasun azterlanaren 2. bertsioari (2020ko abuztuko alea).

**BIGARRENA.-** Aurreko erabakian aipatzen den xehetasun azterlana Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, Hirigintza Plangintzako Administrazio Erregistroan gordailutu dezan, argitaratu baino lehen.

**HIRUGARRENA.-** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea behin betiko onespeneren erabakia, onartutako dokumentuaren arau-zehaztapenekin batera, eta xehetasun azterlana Hirigintza Plangintzako Administrazio Erregistroan jaso izanaren agiria.

**LAUGARRENA.-** Behin betiko onartzeko erabakia argitaratzea Gipuzkoako Lurralde Historikoan hedapen handiena duen egunkarian edo egunkarietan.

**BOSGARRENA.** Ebazpen hau jakinaraztea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Gipuzkoako lurralde ordezkariari eta dokumentua idatzi duenari (Luis Uzcanga).

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du behin betiko onespina ematea Orixe Institutuaren lursailean (p2) institutu berria eraiki ahal izateko xehetasun azterlanari.

### **10.BEHIN BETIKO ONESPINA EMATEA "18. APATTAERREKA" HIRIGINTZA ESPARRUKO "18.1 TOLOSA-IBARRAKO LURRAK" AZPIESPARRUKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIARI.**

#### **AURREKARIAK**

1.- 2018ko irailaren 20an, Idoia Bastida Seguesek, TOLOSALDEKO APATTAERREKA INDUSTRIA LURRA, SA enpresaren izenean, "18. *Apattaerreka*"



hirigintza esparruko 18.1. (Tolosa)-Ibarrako lurak azpiesparruko hiri antolamenduko Plan Berezia aurkeztu zuen.

Agiriaren barne zegoen Plan Bereziaren Ingurumen-azterlan estrategikoa, zeinak ingurumen-azterlanaren irismeneko dokumentuaren zehaztapenak jasotzen zituen. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Ingurumen administrazioaren Zuzendaritzak egin zuen 2018ko apirilaren 12an (21/2013 legea). (B.5.1/18.1/2017/0001 espedientea).

2.- Udal teknikariek txostenak egin eta dokumentua zuzendu ondoren, Gobernu Batzarrak, 2019ko maiatzaren 27an, besteak beste, erabaki hau hartu zuen:

*"LEHENENGOA.- Hasierako onespena ematea 2019ko apirilaren 30ean aurkeztutako "18. Apattaerreka" hirigintza esparruko 18.1. (Tolosa)-Ibarrako lurak" azpiesparruko hiri antolamenduko plan bereziari.*

*BIGARRENA.- Jendaurrean jartzea Plan Berezia eta Ingurumen Azterlan Estrategikoa 45 EGUNEZ, alegazioak aurkeztu ahal izateko, eta dagokien administrazioei txostenak eskatzea, EJKo Irismen Agiriaren arabera.*

*HIRUGARRENA.- Agintzea, Planari behin betiko onespena eman aurretik, honakoak bete beharko direla, besteak beste:*

1. *Proposatutako aparkaleku kopurua egokitu egin beharko da honako irizpideak kontuan hartuta:*

*- Aparkaleku publikoak ere konputatu arren, ibilgailuentzako aparkaleku plaza 1 aurreikusi beharko da 100 m<sup>2</sup>(s)-ko.*

*- Aparkaleku pribatuek izan dezaketen eraikigarritasunarekin proportzioa mantendu beharko dute (lurgainean sartzen ez badira, sotoa eraikitzeo aukera aurreikusi beharko da ordenantza partikularretan).*

*- Horretaz gain, bizikleten aparkalekuak aurreikusi beharko dira, autoak aparkatzeko erabiltzen den aparkaleku plaza pribatuekin batera.*



*Autoen aparkalekuek okupatzen duten azaleraren % 10 izan liteke lursail bakoitzean bizikletentzat aurreikusi beharrekoa.*

2. *Plana generoaren eta hizkuntzaren ikuspegitik ebaluatu beharko da.*
3. *GI-2130-A errepidearen babes-eremuan egoteagatik Errepide Saileko baimena lortu beharko da.*
4. *Ekonomia eta Enpresa Ministerioko Telekomunikazio eta Informazioaren Teknologien Zuzendaritza Nagusiaren Txostenean jasotako baldintzak bete beharko dira.*
5. *Zortasun aeronautikoen aldeko txostena jaso beharko da.*
6. *Azpiegiturei dagokienez, lortu beharko dira udal ingeniariaren eta dagozkion administrazio edota erakundeen aldeko txostenak.*

*LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea TOLOSALDEKO APATTAERREKA INDUSTRIA LURRA, S.A.-ri eta Ibarako Udalarí*

**3.-** Tolosako eta Ibarako udalek 45 egunez jendurrean jarri zituzten Plana eta Ingurumen azterketa estrategikoa, baita azterketa horren laburpen ez-tekniko bat ere, egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izateko. Iragarki hori 2019ko ekainaren 26ko (120. zenbakia) eta ekainaren 19ko (115. zenbakia) Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**4.-** Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 22. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, Tolosako Udalak kontsulta egin zien ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei, eta 45 eguneko epea eman zuen.

**5.-** Jendurrean jartzeko epea amaitu ondoren, 2020ko urtarrilaren 31n, udal idazkariak ziurtatu zuen ez zela alegaziorik jaso eta egindako kontsulten emaitza adierazi zuen.

**6.-** 2020ko urtarrilaren 31ko 213 Alkatetza Dekretuaren bidez, sustatzaileari dokumentazio osagarria eskatu zitzaion, besteak beste.



7.- 2020ko apirilaren 29an, Mikel Plazaola Oyarzabalek, TOLOSALDEKO APATTAERREKA INDUSTRIA LURRA, SA enpresaren izenean, "18. Apattaerreka" hirigintza esparruko 18.1. (Tolosa)-Ibarrako lurak azpiesparruko hiri antolamenduko Plan Berezia aurkeztu zuen, 2020ko martxoko data duena.

8.- Ingurumen Administrazioaren zuzendariak 2020ko urriaren 19an hartutako erabakiaren bidez, Plan Bereziaren Ingurumen Adierazpen Estrategikoa egin zuen, eta 2020ko azaroaren 4ko EHAAn argitaratu zuten (218. zenbakia).

9.- 2021eko urtarrilaren 13an, Planaren idazle taldeko Maria Lasa arkitektoak Planaren Memoria dokumentua, zuzenduta, helarazi zuen emailaz, aparkaleku kopuruari buruzko atala argitu nahian.

10.- 2020ko abenduaren 11n, Ingurumen eta Landa eremuko teknikariak ALDEKO txostena idatzi zuen, baina baldintza batzuk jarri zituen.

11.- 2020ko abenduaren 29an, Obra eta Zerbitzuetako Azpisaileko teknikariak ALDEKO txostena idatzi zuen, baina urbanizatzeko jarduketa-programak eta urbanizazio-proiektuak kontuan eduki behar dituzten zenbait baldintza ezarrita.

12.- 2021eko urtarrilaren 13an, Hirigintzako buruak txostena idatzi zuen, eta zenbait baldintza ezarri zituen behin betiko onespenerako. Era berean, Nekane Azarola abokatuak txosten juridikoa egin zuen 2021eko urtarrilaren 13an, behin betiko onespeneraren aldekoa.

## AZTERKETA TEKNIKOA

Udaleko Hirigintzako buruak txostena egin zuen 2021eko urtarrilaren 13an. Txostena behin betiko onespenera ematearen aldekoa da, baina honako baldintza hauek jarrita:

- 10 eguneko epean Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren eta Ingurumen Azterketa Estrategikoaren 2na ale aurkeztu beharko dira paperean eta CDan. Memoriak 2021eko urtarrilaren 13an aurkeztutakoarekin bat etorri beharko du.



- Kontserbazioko Hirigintza Entitatea eratzea eta erregistratzea 20 urterako.
- Plan Bereziaren eta Ingurumen Azterketa Estrategikoaren dokumentuetan aipatzen den Industriagunerako Mugikortasun Jasangarriko Plana egitea urbanizazio proiektua egin aurretik. Plan horretan atal hauek aztertu beharko dira, besteak beste:
  1. Ibarrik industrialde berrira bizikletentzako planteatu den bidea oinezkoen bidetik bananduta edo segregatuta egotea.
  2. San Blas auzoko sarrera eta industriaguneko goiko aldea lotzeko zein den biderik egokiena aztertu beharko da, beste zubi bat egiteko aukera ere barneratuz.
  3. 2. fase honen beheko errotondatik gaur egun eraikita dagoen eremura joateko oinezkoen eta ibilgailu ez motorizatuen mugikortasuna sustatzeko hartu beharreko neurriak azaldu beharko dira.
- Urbanizatzeko jarduketa programan eta urbanizazio-proiektuan honakoak hartu beharko dira kontuan:
  1. Plan Bereziak aipatzen duen batez besteko ur emariaren eskaera justifikatzea.
  2. Zerbitzu-sareen kanalizazioen trazadura eta elementuak lurzoru publikoan kokatzea.
  3. Azpiegituren zerbitzua behar duten eremu guztietara zabaltzea.
  4. Mendi-hegalen, bideetako ezpondaren eta gainerako gainazalen geometriaren konformazioa diseinatzea, bat etorritik parke batek eskatzen duenarekin eta ingurune natural bati dagokionarekin.
  5. Ibilgu perimetralak eta ekaitz putzuak ur emari minimo bat iraunkorki mantentzeko egingo diren jarduerak zehaztea.



- Proposatutako eraikuntzek edo objektu finkoek (zutoinek, antenek, kartelek eta abar) zortasun aeronautikoak ez urratzeko baldintzak bete beharko dira.

## AZTERKETA JURIDIKOA

Araudi SLP-ko Nekane Azarola abokatuak txostena egin zuen urtarrilaren 13an eta honako hau dio, laburbilduz, besteak beste:

**1.- Txosten sektorialak.** Egindako txosten sektorial guztiak **ALDEKOAK** izan dira, eta honako hauek dira:

- Telekomunikazioen eta Informazio Teknologien zuzendari nagusiak 2019ko otsailaren 25ean egindako txostena.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 2019ko abuztuaren 20an egindako txostena.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kudeaketa eta Plangintzako zuzendari nagusiak 2019ko abuztuaren 2an egindako txostena.
- Ur Agentziak 2020ko urtarrilaren 7an egindako txostena.
- Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak 2019ko abenduaren 19an egindako txostena.
- Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren txostena, 2019ko urriaren 23koa.
- Hegazkintza Zibileko Zuzendaritza Nagusiaren txostena, 2019ko apirilaren 29koa.

**2.- Ingurumen prozedura.** Jarraitutako prozedurak legez ezarritako prozedura betetzen du, eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2020ko



urriaren 19ko Ebazpenaren bidez egindako ingurumen-adierazpen estrategikoaren formulazioarekin amaitu da (2020ko azaroaren 4ko EHAA, 218. zenbakia).

Plana egikaritzean, bai urbanizazio-obrek, bai eraikuntza-obrek adierazpen horretan ezarritako jarraipen-neurri eta neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaile guztiak bete beharko dituzte.

### 3.- Araudi aplikagarria:

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.c) artikulua Plana behin betiko onartzeko eskumena **osoko bilkurari** esleitzen dio.
- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.3 artikulua. Horren arabera, "*Hirigintza-planak eta horien aldaketak eta berrikuspenak dagokion foru-aldundiko erregistroan gordailutzeko bidaliko dituzte udalek, artikulua honen 5. zenbakian aipatzen den argitalpena egin baino lehen. Erregistroak emandako hirigintza-planen dokumentuen kopiek haien edukia egiaztatzen dute legezko ondorio guztietarako*".
- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.3 artikulua, honako hau ezartzen duena: "*Lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratuko da behin betiko onespren-erabakien eduki osoa, eta, gutxienez, hirigintza-arauena, bai eta lizentziak eteteko eta kentzeko erabakiena ere, aurreko zenbakietan aipatutako erregistroan dagokion hirigintza-plana gordailutu dela adierazita, erabaki horiek hartu dituen organoaren aginduz. Eta dagozkion hirigintza-planek aurreko artikuluan aurreikusitako ondorioak ekoizteko eta Behin betiko onesprenaren erabakia, gainera, dagokion lurralde historikoan hedapen handiena duen egunkarian edo egunkarietan argitaratuko da*".
- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 95., 96. eta 97. artikulua.





- 46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen.

Tolosako Udaleko Lurraldeko Batzordeak, 2021eko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

**Aldeko botoak:** Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Patxi Amantegi Zubiria, Jose Mari Villanueva Telleria, Andu Martinez de Rituerto, Ander Figuerido Zubiria eta Aitzol Garcia.

Beraz, hori dena ikusirik, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

## IRIZPENA

**LEHENENGOA.-** Behin betiko onespina ematea, "18 Apattaerreka" Industrialdeko 18.1 (Tolosa)-Ibarrako Terrenoak azpieroaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziari (2020ko martxokoari) eta 2021eko urtarrilaren 13an aurkeztutako eranskinari, Tolosako udalerriko lursailei dagokienez, honako baldintza hauekin:

- 10 eguneko epean Hiri Antolamenduko Plan Berezia eta Ingurumen Azterketa Estrategikoaren bina ale aurkeztu beharko dira paperean eta CDan. Memoriak 2021eko urtarrilaren 13an aurkeztutakoarekin bat etorri beharko du. Horrez gain, aurkeztu beharko dira hirugarren puntuari aipatzen diren Laburpena eta Planaren aplikazioak ingurumenean izandako eraginaren jarraipena egiteko hartu diren neurriak zehazten dituen dokumentua ere, GAO n argitaratzeko.
- Kontserbazioko Hirigintza Entitatea eratzea eta erregistratzea 20 urterako.
- Plan Bereziaren eta Ingurumen Azterketa Estrategikoaren dokumentuetan aipatzen diren Industriagunerako Mugikortasun Jasangarriko Plana egitea



urbanizazio proiektua egin aurretik. Plan horretan atal hauek aztertu beharko dira, besteak beste:

1. Ibarrik industrialde berrira bizikletentzako planteatu den bidea oinezkoen bidetik bananduta edo segregatuta egotea.
  2. Aztertu beharko da zein den biderik egokiena San Blas auzoko sarrera eta industriaguneko goiko aldea lotzeko, beste zubi bat egiteko aukera ere barneratuz.
  3. 2. fase honen beheko errotodatik gaur egun eraikita dagoen eremura joateko oinezkoen eta ibilgailu ez-motorizatuen mugikortasuna sustatzeko hartu beharreko neurriak azaldu beharko dira.
- Urbanizatzeko jarduketa programan eta urbanizazio proiektuan honakoak hartu beharko dira kontuan:
    1. Plan Bereziak aipatzen duen batez besteko ur emariaren eskaera justifikatzea.
    2. Zerbitzu-sareen kanalizazioen trazadura eta elementuak lurzoru publikoan kokatzea.
    3. Azpiegituren zerbitzua behar duten eremu guztietara zabaltzea.
    4. Mendi-hegalen, bideetako ezpondaren eta gainerako gainazalen geometriaren konformazioa diseinatzea, bat etorritik parke batek eskatzen duenarekin eta ingurune natural bati dagokionarekin.
    5. Ibilgu perimetralak eta ekaitz putzuak ur emari minimo bat iraunkorki mantentzeko egingo diren jarduerak zehaztea.
  - Proposatutako eraikuntzek edo objektu finkoek (zutoinek, antenek, kartelek eta abar) zortasun aeronautikoak ez urratzeko baldintzak bete beharko dira.
  - Plana egikaritzean, bai urbanizazio-obrek, bai eraikuntza-obrek bete beharko dituzte Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2020ko urriaren 19ko



ebazpenean ( 2020ko azaroaren 4ko EHAA, 218. zk argitaratuta) ezarritako jarraipen-neurri eta neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaile guztiak.

**BIGARRENA.-** Aurreko erabakian aipatzen den Plan Berezia Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, Hirigintza Plangintzako Administrazio Erregistroan gordailutu dezan, argitaratu baino lehen.

**HIRUGARRENA.-** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea:

- Behin betiko onespeneren erabakia.
- Hirigintza-arauen eduki osoa.
- Plan Berezia Hirigintza Plangintzako Administrazio Erregistroan jaso dela.
- Ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren mendeko Plana denez, iragarki bat alderdi hauek bilduko dituen:

a) Laburpen bat, alderdi hauek jasoko dituen:

- 1) Nola integratu diren planean ingurumen-arloko alderdiak.
- 2) Planean nola hartu diren kontuan ingurumen-azterketa estrategikoa, jendaurreko informazioaren emaitzak eta kontsulten emaitzak, barne hartuta, hala badagokio, mugaz gaindiko kontsultak eta ingurumen-arloko adierazpen estrategikoa, bai eta prozesuan sortutako desadostasunak ere, halakorik izan bada.
- 3) Aukeratutako hautabidea aukeratzeko arrazoiak, aintzat hartutako gainerako hautabideekin alderatuta.
- 4) Organo substantiboak zer helbide elektronikotan jarriko duen jendurrean planaren eduki osoa.



b) Planaren aplikazioak ingurumenean izandako eraginen jarraipena egiteko hartu diren neurriak.

**LAUGARRENA.-** Behin betiko onartzeko erabakia argitaratzea Gipuzkoako Lurralde Historikoan hedapen handiena duen egunkarian edo egunkarietan.

**BOSGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea Ibarraiko Udalari eta Tolosaldeko Apattaerreka Industria Lurra SAri.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du behin betiko onespena ematea "18. Apatttaerreka" hirigintza esparruko "18.1 Tolosa-Ibarra lurrak" azpiesparruko hiri antolamenduko plan bereziari.

## **BERRI EMATEA**

### **11.PLAN HONEN ONESPENAREN BERRI EMATEA: TOLOSAKO ADIKZIOEN II. TOKIKO PLANA 2021-2025.**

#### **AURREKARIAK**

Tolosako Udalak hiru hamarkada daramatza adikzioaren fenomenoari arreta eskaintzen eta esku-hartze teknikoak garatzen adikzioen alor horretan. Hasierako proiektu hori



etengabe joan da aldatzen eta egokitzen garaian-garaiko errealitatera; hain zuzen ere, etengabeko bilakaeran dagoen fenomeno baina adikzioena.

Ondorioz, adikzioen alorrean egiten den esku-hartzea tokiko adikzio-planen bidez programatzen eta garatzen da. Hain zuzen ere, udal plan horietan islatzen da gaiaren inguruan herrian dagoen errealitatea, eta aurreikusten dira herrian gaia jorratzeko burutu beharreko jardueren plangintza, antolamendua eta koordinazioa.

Tolosako I. Udal Plana 2006. urtean osatu zen, eta orduz geroztik aldaketa ugari eman dira, nola arautegi aldetik, hala Tolosako adikzioen fenomenoari dagokion errealitatean ere. Hori dela eta, hura berritzeko beharra nabarmena zen, eta 2019ko irailean erabaki zuen Tolosako Udalak arlo horretan adituan den AGIPAD Elkarte (Drogen Abusuaren Ikerketa eta Prebentziorako Gipuzkoar Elkarte) kontratatzea Tolosako Udalaren Adikzioen II. Plana osatzeko lanketa burutu zezan.

## **GAIAREN AZTERKETA**

Tokiko plan hau garatzeko, lehenengo, diagnostiko bat egin dute, herriko eragile eta elkarten parte-hartzearekin. Hortik abiatuta, printzipio gidariak eta esku-hartze ardatzak proposatu dira, eta, horietan oinarrituta, helburuak eta ekintzak zehaztu dira, datozen lau urteotan garatzeko.

Horretarako, kontuan izan da gaiari lotutako marko teoriko eta normatibo espezifikoa. Era berean, azpimarratu behar da Tolosako Udalaren eskumena dela Tolosako Adikzioen (II) Tokiko Plana onartzea, alkatearen eskumena, hain zuzen ere:

1) 2/2016 LEGEAK, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, Udalerrien eskumen propioak zehazterakoan, 10. puntuan honako hau dio: "Osasun publikoa sustatzea, kudeatzea, defendatzea eta babestea".

2) 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21. artikuluan, alkatearen eskumenak zehazterakoan, j. puntuan honako hau dio: "Osoko bilkurari berariaz egotzi gabeko plangintza orokorraren garapeneko plangintza-tresnak onartzea".



3) 1/2016 Legea, apirilaren 7koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa.

Hori guztia kontuan izanda, honen bidez proposatzen da:

### PROPOSAMENA

**LEHENENGOA.-** Tolosako Adikzioen II. Tokiko Plana onartzea, 2021-2025 urteetako indarraldia izango duena.

**BIGARRENA.-** Plan honetan aurreikusitako ekintzak jorrazteko proposatutako kronogramaren azterketa egitea, urtez urteko ekintza-planak adostuta. Horretarako, beharrezko koordinazioak egingo dira inplikaturako komunitateko erakunde eta eragileekin, eta jarduerak abiarazteko dagozkion espedienteak jarriko dira martxan.

**HIRUGARRENA.** - Onespenaren berri ematea Batzorde Informatiboari eta Udalbatzari. Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

### **12. KREDITU ALDAKETA HONEN BERRI EMATEA:**

#### **16/2020 KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEARI DAGOKIONA, KREDITU TRANSFERENTZIEN MODALITATEKOA.**

Begoña Tolosa Mendia, Ogasuneko zinegotzi delegatuak azalpenak eman ditu.

2020/2143 Alkatetza Dekretuak honela dio:

#### **ALKATEAREN DEKRETUA 2020/2143**

Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak emana

Ikusita udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, gastu partiden arteko kreditu transferentzien modalitatekoa, 2020-KALD-000016-00 zenbakiduna.

Ikusita jarduneko Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.

Aipatutako Foru Arauak 29. artikuluen 3. eta 4. apartatuen bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau



### EBAZTEN DUT

**Lehenengoa.-** Onartzea udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espediente, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

#### Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
1	PERTSONAL GASTUAK			
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	98.000,00	10.116,00	87.884,00
3	FINANTZA GASTUAK			
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	83.134,00	6.459,00	76.675,00
5	KREDITU GLOBALA ETA BESTELAKOAK			
6	INBERTSIO ERREALAK			
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK			
8	FINANTZA AKTIBOAK			
9	FINANTZA PASIBOAK			
<b>GUZTIRA</b>		<b>181.134,00</b>	<b>16.575,00</b>	<b>164.559,00</b>

#### Kreditua jasoko duten gastuak (altak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1	PERTSONAL GASTUAK			
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	230.330,00	16.575,00	246.905,00
3	FINANTZA GASTUAK			
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK			
5	KREDITU GLOBALA ETA BESTELAKOAK			
6	INBERTSIO ERREALAK			
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK			
8	FINANTZA AKTIBOAK			
9	FINANTZA PASIBOAK			
<b>GUZTIRA</b>		<b>230.330,00</b>	<b>16.575,00</b>	<b>246.905,00</b>



**Bigarrena.**- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri eman beharko zaio Udalbatzari, hurrengo bilkuran.

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

**13. ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:**  
**2020KO ABENDUAREN 1ETIK 30ERA (2020/1961-2020/2161).**

Alkatetzak 2020ko abenduaren 1etik 30era (2020/1961-2020/2161) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

## MOZIOAK

**Gai-zerrendatik aparte, eta Udalbatzak aho batez premiatasuna onartu ondoren, honako gai hau azertu dute**

**14. EGIARI ZOR FUNDAZIOAREN MOZIOA.**

Motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei laguntzeko, eta biktima horien erreparazioa eta aitortpena tramitzatzeko, uztailaren 28ko 12/2016 Legea aldatzen duen apirilaren 4ko 5/2019 Legean oinarrituta, EAJ-PNV, EHBILDU, PSE-PSOE talde politikoen aurkeztu duten mozioak honela dio:

*“Zioen azalpena*

*Egiari Zor Fundazioa 2012. urteaz geroztik ari da lanean Estatuak eragindako edo sustatutako indarkeriak jasan dituzten biktimen eskubideen alde. Fundazioa osatzen dute erailak izan ziren pertsonen senitartekoen, eta zaurituak edo torturatuak izan ziren pertsonen.*





2019ko irailaren 27an epea zabaldu zen giza eskubideen urraketen biktimak apirilaren 4ko 5/2019 Legearen babespean aitortzeko eskaerak aurkezteko. Lege horrek aldatu egin zuen uztailaren 28ko 12/2016 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan giza eskubideen urraketak jasandako biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa.

Legearen helburua honakoa da: funtzionario publikoek beren eginkizunetan edo beren eginkizunetatik kanpo eragindako giza eskubideen urraketen biktimak aitortzea; taldean edo modu isolatuan, indibidualki eta kontrolik gabe jarduten zuten partikularrek eragindako eskubide urraketak aitortzea; eta, urraketa horien ondorioz, pertsonen bizitzan edo osotasun fisiko, psikiko, moral edo sexualean izandako eraginak aitortzea.

Laburki esanda, Legearen bidez aitortza jaso dezakete 1960tik 1999ra bitartean estamentu ofizialek praktikara eramandako edo sustatutako biolentziek EAEn eraildako, torturatutako edo larriki zauritutako pertsonak (edo urraketaren unean EAEn bizi zirenek).

Zehazki, bi epe daude zabalik eskaerak aurkezteko:

1979 eta 1999 bitartean gertatutako kasuetarako epea: 1979ko urtarrilaren 1etik 1999ko abenduaren 31ra bitartean gertatutako kasuek aurkeztu dezakete eskaera.

1960tik 1978ra bitartean gertatutako kasuetarako epea: 2020ko apirilaren 16ra arteko ezohiko epea ere zabaldu da, honako pertsona hauek eskabideak aurkez ditzaten:

- Ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuan ezarritako baldintza guztiak bete arren, aitortpena eta erreparazioa eskatu ez duten pertsonak edo epez kanpo eskatu zutenak.
- 12/2016 Legearen betekizunak betetzen dituzten pertsonak eta ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuak babesten ez zituenak.

Ehunka dira, milaka ziurrenik, denbora tarte horietan Estatuak praktikara eramandako giza eskubideen urraketak jasan zituzten pertsonak, eta aipatu legearen babesean aitortuak izateko egin beharreko kudeaketa ez da erraza.

Biktima-izaera aitortzeko eskaera egiten duten pertsonak eskabidea aurkeztu behar dute. Hori euskadi.eus atarian elektronikoki bete dezakete, edo, bestela, eskabide-eredu normalizatua egoitza elektronikoko horretan bertan deskargatu eta Eusko Jaurlaritzaren Zuzenean zerbitzuko edozein bulegotan aurkeztu.

Eskaera horretan, giza eskubideen urraketa gertatu zen testuinguruaren deskribapena jaso behar da, eta biktima-izaera frogatzeko garrantzitsutzat jotzen



*diren txosten, ziurtagiri eta dokumentuak erantsi behar zaizkio. Hala ere, dokumentaziorik ez badago, inolako arazorik gabe egin daiteke eskaera.*

*Egia Zor Fundazioa prest dago behar duen orori izapideak egiten laguntzeko. Horretarako, nahikoa da harremanetan jartzea [info@egiarzor.eus](mailto:info@egiarzor.eus) helbide elektronikora idatziz edo 944 045 363 telefonora deituz.*

*Berebiziko garrantzia du Euskal Herriko indarkeria testuinguruan gertatu diren giza eskubideen urraketa guztiak erabat aitortzeko bidean aurrera egiten jarraitzeak. Estatuak eragindako tragediaren inguruko egia osoa aitortzea, ezagutzea eta ezagutzera ematea ere ezinbestekoa da, bermatzeko giza eskubideen urraketan biktima bat bera ere ez dela geratuko dagokion babesik eta aitortzarik gabe.*

*Hori horrela,*

- 1. Tolosako Udalak aitortza adierazten die Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan giza eskubideen urraketak jasan zituzten biktimei, eta egokitzat jotzen du 5/2019 Legeak eskainiko dien erreparazioa, biktima horiek duten egia, justizia eta memoriarako eskubideak egikaritzeko urrats garrantzitsua izanik.*
- 2. Era berean, Tolosako Udalak animatzen ditu giza eskubideen urraketan biktima gisara errekonozimendua eta erreparazioa jasotzeko eskaera aurkezteko borondatea duten udalerriko pertsonak prozedura hori martxan jartzeko eskabidea aurkeztera. Horrez gain, hori posible izan dadin, pertsona horiei aholkularitza eta laguntza emateko konpromisoa ere hartzen du Udalak.*
- 3. Tolosako Udalak jendaurrean jakinaraziko du hartutako erabakia, dituen ohiko komunikazio-bideak erabiliz, eskaera prozedurak abiatzeko interesa izan dezakeen pertsona oro informatuta egon dadin dagozkion eskubideen inguruan.”*

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du Egia Zor Fundazioak aurkeztutako mozioa.



**Udalbatzak berriro gai-zerrendari heldu dio, hain zuzen ere, 14. gaiari, ordena aldatu ondoren 15. zk.a izango duena.**

## **15. ETXERAT ELKARTEAREN MOZIOA.**

Moizioak honela dio:

*“38 eta 16 urte betetzen dira gure bizilagunak ziren Arantza Amezaga eta Rosa Amezaga alde batetik eta Leo Esteban Nieto bestetik, euskal presoek zein haien senide eta gertukoei espetxe politikak ezartzen dieten urrunketa politikaren testuinguruan hil zirela .*

*1982-09-09an Madridero Auzitegi Nazionalatik bueltan, preso zegoen bere senidea Luis Francisco Maria Amezagaren epaiketatik , herri honetako auzotarrak ziren, Arantza Amezaga eta Rosa Amezaga, bizia galdu zuten errepidean jasandako istripu batean.*

*2004-06-04an Puerto de Santa Mariako bidean preso zegoen bere senidea Esteban Esteban Nieto bisitatzetik zetorrela herri honetako auzotarrak , Leo Esteban Nietok, errepidean jasandako istripu baten ondorioz bizia galdu zuen*

*Heriotza hauek ez ziren kasualitatea izan. Arantza Amezaga eta Rosa Amezagak , 436 kilometroko bidaia egin beharko zuten Auzitegi Nazionalera iristeko, eta beste 436 kilometro etxera itzultzeko;*

*Leo Esteban Nietok , Berrogei minutuko bisita egin ahal izateko, 1004 kilometroko bidaia egin beharko zuen espetxera iristeko, eta beste 1004 kilometro etxera itzultzeko; bidai luzeak egitea aukera bakarra dute presoek senide eta lagunek bisita eskubidea bermatzeko, duela hiru hamarkada frantziar eta espainiar estatuetako gobernuek euskal presoek aurkako urruntze politika martxan jarri zutenetik.*

*Geroztik, beraien senide eta lagunek milaka kilometro egiten dituzte astero errepidean. Oraingoan, dokumentuekin egiaztatutako 344 kotxe-istripu gertatu dira; urrunketak 1.000 kaltetu eta zauritu inguru eta 16 hildako eragin ditu.*

*Memoria ariketa egitea guztiz beharrezkoa dela uste dugu, antzinako espetxe politika hau atzean uzteko garaia da, ezinbestekoak diren oinarriak behin betiko sendotzearekin batera, horrelakorik berriro ez gertatzeko aitortza ariketa egitea ezinbestekoa iruditzen zaigu.*

*Hori dela eta, hurrengo erabakiak adosten ditu Udal honek:*

**1.- Madriden urrunduta zegoen senide preso baten epaiketara zihoaztenean, urrunketa politikak eragindako trafiko istripu batean hil ziren Arantza eta Rosa Amezagaren, senideek pairatutako sufrimendua aitortzen du instituzio honek.**



*Puerto de Santa Marian urrunduta zegoen preso bat bisitatzera zihoanean urrunketa politikak eragindako trafiko istripu baten ondorioz hil zen Leo Esteban Nietoren senideek pairatutako sufrimendua aitortzen du instituzio honek*

*2.- Espetxeko Lege Orokorren birgizarteratze printzipioak jarraituz, askatasuna kentzeko zigorra dutenen deserrotzea ekiditeko urrunketaren espetxe politikarekin desadostasuna adierazten du udaletxe honek, eta era berean, ETArek desagerpenak ekarritako garai berriekin bat eginez, espetxe politika berri baten beharra ikusten du, zigortuak zigorra errotze sozial eta familiarretik gertu betetzea ahalbideratzen duena, horrela haien senideekin duten harremana erraztuz eta adingabeko seme-alaben eskubideak defendatuz, haien ongizatea bermatzeko.*

*3.- Preso dauden pertsonak urruntzea haien senide eta lagunei ezarritako zigor gehigarritzat hartzen dugu. Hori dela eta, espetxe politika honekin premiaz amaitzeko eskaera egiten dugu, Arantza Amezaga, Rosa Amezaga eta Leo Esteban Nieto heriotza bezalako gertaerak berriz ere gerta ez daitezen.*

*4.- Legedi arrunta eta normalizatutako espetxe politika bat aplikatuz, beste neurri batzuekin batera, presoen problematikari erantzun bat ematea elkarbizitza demokratiko bat eraikitzeko kontutan izateko ekarpena litzatekeela uste du udaletxe honek."*

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du Etxerat elkarteak aurkeztutako mozioa.

## **16.EHBILDU TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: EUSKO JAURLARITZARI UDALENTZAKO EZOHICO FUNTSA BEREZI GEHIGARRIAREN ESKARIA.**

EHBILDUko taldeak erretiratu egin du aurkeztutako mozioa, Udaleko hiru talde politikoak adostasun batera iritsi direlako.

Mozio adostuak honela dio:

*COVID19aren pandemiak sortutako krisiak gogor eragin du udalen egunerokotasunean, eta batezere, udalek 2020rako eginiko aurreikuspenetan. Udalek beraien aurreikuspenak alde batera utzi etabeste lehentasun eta beharrian batzuei egin behar izan diete aurre:*



*herriarren osasun segurtasunabermatzeko neurriak hartzea, garbitasunean zerbitzu gehigarriak ezartzea, gizarte politiken arloan sortutako beharrian berriei erantzutea, herrietako komertzio eta zerbitzuei laguntzea... Alarma egoeraren ondorioz udal zerbitzu asko bertan behera uzteak ere galera ekonomikoak eragin ditu udaletan.*

*Inbertsioak berrantolatzeaz gain, udalek diru sarreretan ere aldaketak jasango dituzte: batetik, tasa eta prezio publikoen bitartez lortzea aurreikusten zituzten sarrerak murriztuko dira; eta bestetik, foru finantza funtsaren bidez jaso beharko luketen diru kopurua ere asko murriztuko da.*

*COVID19aren krisiak behar berriak sortu ditu, eta erakunde publikoak horiei erantzutera behartuta daude. Udalak herritarrengandik gertuen dauden erakundeak izanik, momentu honetan beraiengaitasun ekonomikoa bermatzea oso garrantzitsua da.*

*Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak udalentsako ez-ohiko funtsa berezia sortzea dagokio gutxienez ondorengo udal premiei erantzuteko:*

- Udal zerbitzuetan izaniko galerei aurre egiteko*
- Udalek zerbitzuak eta langile postuak telelanera egokitzekeo gastuei aurre egiteko*
- Herritarren larrialdi egoerei aurre egiteko*
- Arrakala informatikoa, haurren elikadura zein udal eskumenekoak ez diren beste gai batzuetan udalek egindako inbertsioengatik sortutako gastuak ordaintzeko*
- Hezkuntza eta osasun arloan udalei sortuko zaizkien beharrian berriei aurre egiteko (adibidez eraikinak egokitzea eta garbitasun neurrien zorrozteak dakartzan kostu gehigarriak)*

*Bestetik, Europar Batasunak ere funtsa bereziak iragarri ditu datozen urteetan izango ditugun erronkei aurre egiteko eta COVID19aren izurriteak areagotutako krisi ekonomiko eta sozialaren ondorioak berreraikitzekeo. Erronka horiei tokikotasunetik ere egin beharko zaie aurre, eta horretarako ezinbestekoa da udaletara funtsa horiek heltzea eta udalek (aniztasun osoa kontuan izanik dagokion ordezkartzaren bidez) funtsa horien lanketan zuzenean parte hartzea, Nafarroako Gobernuak ahalbideratu duen bezala.*

*Hori horrela,*

- Tolosako Udalak gure herriaren errekupeazioan eta eraldaketan eragile aktibo izatea aldarrikatzen du.*
- Tolosako Udalaren iritziz erakundeen arteko elkarrizketa eta lankidetzaren osagarritasunetik eta efikaziatik politikak garatzeko funtsezko bi tresna dira. Eta horregatik, euskal erakunde-egituraren barruan Udalek dugun papera kontuan hartuz, errekupeatzeko Funtsak, Proiektuak eta Planak sustatzeko sortzen diren erakundeen foroetan, mahaietan edo organismoetan, Eudelen bitartez, gure parte-hartzea beharrezkoa ikusten dugu.*
- Tolosako Udalak Eusko Jaurlaritzari hauxe eskatzen dio: Europako Funtsen inguruan Euskadi Next garatzeko ardura duen Sailen arteko Batzordean egingo duen lanarekin batera, EUDELekin koordinatuta lan egin dezan, udal-esparruan proiektuei eta jarduketeei erantzun ahal izateko Euskal Autonomia Erkidegoaren*



*Errekuperazio eta Erresilientziako programa bat bermatzeko, programa horretan bildutako osagaietan eragingo duten dirulaguntza-lineen bitartez.*

- *Tolosako Udalaren iritziz behar-beharrezkoa da erakunde guztiek elkarrekin lan egiten jarraitzea, Finantzetako Lurralde Kontseiluaren barruan, informazioa partekatuzko, eta erabaki partekatuak eta adostuak hartzeko toki-finantziazioaren arloan.*

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du Eusko Jaurlaritzari udalentsako ezohiko funtsa berezi gehigarriaren eskaria.

## **17.EHBILDU TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMA ARRETA-SARE PUBLIKO ANTOLATU GISA DEFENDATZEA.**

Lehenik, EHBILDU taldeak aurkeztutako mozioa irakurri dute. Honela dio:

### **Zioa**

*Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen arabera, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema "arreta-sare publiko antolatu bat da, erantzunkizun publikokoa", "titulartasun publikoko eta pribatu itunduko prestazio, zerbitzu eta horniduraz" osatua.*

*Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren Ebaluazioa egiteko prozesuak argitara eman du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak jasan duen pribatizazio-politika bizia. Egoera hori askotan salatu bada ere, EAEko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren Ebaluazioak agerian utzi du honen dimentsioa. 2011. eta 2018. urteen artean, foru-aldundiek, batez ere Arabakoak eta Bizkaikoak, adinekoentzako egoitzetan eta eguneko zentroetan plaza berriak irekitzeari utzi*



zioten -eta, kasu batzuetan, sare publikoko plazen kopurua murriztu egin zen-, eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemara arreta eta zaintza eske hurbiltzen ziren herritarrei 'txeke-zerbitzuak' ematen hasi ziren. Hala, 2011n EAEko administrazioek 1.753 'txeke-zerbitzu' ematen zituzten, baina 7 urte geroago, 2018an, kopuru hori 2,5 aldiz handitu zen, 4.489 'txeke zerbitzu' izateraino.

Zerbitzu publiko batek izan dezakeen pribatizazio-modurik muturrekoenak hartu duen dimentsioa erabaki politiko batean oinarritzen da: Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa 'zerbitzu-txeke' gisa instrumentalizatzea. Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen esparruan sortutako prestazioa, helburu argi batekin: "Arreta eta zaintzarako zerbitzu publiko edo itundu bat eskuratzea ezinezkoa denean soilik". Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa, ordea, EAEn adinekoen arreta pribatizatzeko erabili da, arreta-sare publikoaren estaldura murrizten zen bitartean.

Aurreko guztia EAEko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren ebaluazioa egiteko prozesuan azaleratu da. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema hedatzeko ibilbide-orri bat ezartzen zuen adostasun politiko zabal baten emaitza izan zen plan hori, eta horren baitan honako hau erabaki zen: "2011n Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoak esleitutako plazak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako txertatutako zerbitzuetako plaza (plaza arrunt) bihurtu beharko" dira. Aldiz, 7 urtetan, Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako plazen % 6,4 izatetik % 13,5 izatera pasa dira. Jakitera eman den I. Plan Estrategikoaren Ebaluazio dokumentuak arrazoizkotzat aurkeztu nahi du inguruabar hori. Gainera, pribatizazio-politika horren zilegitasuna aitortzeaz gain, kontsideratzen du 'zerbitzu-txekeak' kudeaketa-eredu bat gehiago direla -kudeaketa zuzenaren edo kontzertazioaren parekoa-, eta balioa ematen dio administrazioek "plaza" gehiago irekitzeko duten gaitasunari, inbertsio nabarmen txikiagoarekin. Are gehiago, ebaluazioak politika pribatizatzaile hau beste sektore batzuetara zabaltzearen alde egiten du, hala nola bazterkeriaren edo desgaitasuna duten pertsonen arretara.

Aukera honek lotura estua du adinekoen arretan eta zaintzan irabaziak lortzea zilegi dela ulertzen duen ikuspegiarekin. 'Negozio' horretara 210 milioi euro baino gehiago bideratu dituzte administrazioek 2011 eta 2019 bitartean. Apustu politiko



*horrek geriatrikoetan espezializatutako eta atzerriko inbertsio-funtsekin lotutako talde handien 'gasea' piztu du; izan ere, azken urteotan gora egin dute EAEko adinekoen egoitza- eta eguneko arretaren errealitatean.*

*Jarduera hori gure arau-esparrutik kanpo dagoela alde batera utzita, are garrantzitsuagoak dira zaintzaileek eta zainduak egunerokoan dituzten ondorio larriak, eta, zoritxarrez, ezagunak dira: zaintzaren kalitatea murriztu egiten da; oso lan-prekarietate handia dakar berekin; erabat diluitzen da zaintzaren erantzukizun publikoa izatearen ideia oro; eta ekitaterik eza sortzen du arreta eta zaintza eskuratzean.*

*Covid-19ren pandemiak agerian utzi du egitura kolektiboak behar direla bizitza eta zaintzak konpontzeko. Lizuna da, hain zuzen ere, orain sakondu nahi izatea arreta eta zaintza beharrak merkantilizatzeko mekanismoetan.*

*Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren izaera publikoa aldatzeak eztabaida soziala eskatzen du, eta erakundeok gure jarrera azaldu behar dugu. Horregatik guztiagatik,*

- 1. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arreta-sare publiko antolatua eta erantzukizun publikokoa dela adierazten du Tolosako Udalak.*
- 2. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari pribatizazio-politikak legitimatzeko, bultzatzeko eta hedatzeko ahalegin oro arbuiatzen du Tolosako Udalak.*
- 3. Tolosako Udalak uste du, arreta eta zaintzarako eskubide subjektiboko egoera batean, Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoaren funtzioa mugatu egin behar dela aldi baterako prestazio edo zerbitzu bat eskuratzea bermatu ezin den egoeretara, baldin eta prestazio edo zerbitzu hori administrazio publikoek garatzen ari badira.*

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander





Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla .

**Aurkako botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak gehiengoz ez du onartu EHBILDU taldeak aurkeztutako mozioa Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arreta-sare publiko antolatu gisa defendatzeko.

Jarraian, EAJ/PNV eta PSE-EE udal taldeak aurkeztutako adierazpena irakurri dute.

Honela dio:

*EH Bilduk "Gizarte zerbitzuen Euskal Sistema, arreta-sare publiko antolatu gisa defendatzea" izenez aurkeztutako mozioa dela eta, EAJ-PNV eta PSE.EE alderdi politikoek adierazpen hau aurkezten dugu:*

- *Tolosako Udalak berretsi egiten du Gizarte Zerbitzuen izaera publikoa, 12/2008 Legeak, abenduaren 5ekoa, jasotzen duen bezala. Eta Gizarte Zerbitzu horiek hobetzen eta sendotzen lan egiteko konpromisoa hartzen du, gure Gizarte Babeseko Euskal Sistemaren funtsezko pieza gisa.*
- *Tolosako Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluan EAeko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren lehen ebaluazioa partekatu eta azter dezala. Lehen ebaluazio horrek bigarren plana bideratzeko oinarrizko dokumentua izan behar du.*
- *Tolosako Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio EAeko Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa egin dezala.*
- *Tolosako Udalak uste du, Gizarte Zerbitzuen Legean jasotakoari eta honi buruzko Dekretuan garatutakoari jarraiki, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa modu mugatuan erabili behar dela, orokortu gabe.*
- *Tolosako Udalak euskal erakunde guztiei eskatzen die lan egin dezatela gizarte-zerbitzuen garapena eta mantentzea bermatzeko finantzaketa nahikoa eta iraunkorra izango duen eredu adostu batean."*

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal



Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

**Aurkako botoak:** Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla .

Beraz, Udalbatzak gehiengoz onartu du EAJ/PNV eta PSE-EE taldeak aurkeztutako mozioa Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arreta-sare publiko antolatu gisa defendatzeko.

**Gai zerrendatik aparte, eta Udalbatzak aho batez premiatasuna onartu ondoren, honako gai hauek aztertu dituzte:**

## **18. GIPUZKOAKO OSTALARITZA AURRERA ELKARTEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA.**

Lehenik, EAJ-PNV, EHBILDU eta PSE-EE talde politikoek Gipuzkoako Ostalaritza Aurrera elkarteak erregistratu eta eztabaidarako aurkeztu duen mozioa aztertu dute.

Honela dio:

*“Covid 19aren ondorioz, Estatuko Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak agindutako ostalaritza irentzaren itxierak direla eta, ekonomiaren arlo hori jasaten ari den egoera larriari irtenbide egokia emateko neurriak har ditzaten eskatzeko Ostalaritza Aurrera Gipuzkoa plataformak eskatuta.*

### **ARRAZOIEN AZALPENA**

*Urte honetako martxoaren 14ean, lehenengo Eusko Jaurlaritzak eta egun berean Estatuko gobernuburuak, ostalaritza isteko agindua eman zuten.*

*Maiatzaren 11n, deseskalatzeko 1. fasean, ostalaritza berriro irekitzeko baimena iritsi zen. Irekitzeko baldintzak hain murrizketak izanik, ostalarien gehiengoak maiatzaren 25etik aurrera ireki zuen. Beraz, 71egun itxita egon ziren gure negozioak.*

*Ekainaren 21ean alarma egoera altxa eta, pandemiaren bilakaera negatiboa zela eta, abuztuaren 17an murrizketa berriak etorri ziren eta gaueko aisia erabat itxi*



zen. Urriaren 25ean bigarren alarma egoera agindu zen eta azaroaren 6an bigarren itxiera iritsi zen.

Abenduaren 12an irekitzeko baimena izan genuen, ordutegi eta aforo murrizketa handiekin, 35 egun itxita egon ondoren. Baina ez genuen guztiok irekitzeko baimenik izan. Horrela, Arrasate, Ordizia eta Eibarrek itxita jarraitu zuten.

Handik hiru egunetara, Beasain, Zaldibia eta Azpeitiko ostalaritzaren itxiera agindu zen. Abenduaren 18an, berriz, Segura eta Eskoriatzako ostalaritza itxi zen.

Gaurko egunean, abenduak 31, Errezil, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga, Segura, Zaldibia, Arretxabaleta, Arrasate, Azpeitia, Beasain eta Ordiziako ostalaritzak itxita jarraitzen du.

Guztira, Gipuzkoako ostalariok gure negozioak itxita eduki ditugu 106 eta 125 egun artean, udalerrri bakoitzaren egoera epidemiologikoaren arabera. Gaueko ostalaritzak, berriz, 7 hilabetetik gora darama erabat itxita.

Eta itxita egondako epean ere, gure gastu finko guztiak ordaintzen jarraitu behar izan dugu: telefona, aholkularitza-gastuak, aseguruak, gastu informatikoak, gasa, argiindarra, OHZ, zaborren eta terrazen tasak, alokairuak, maileguak, banketxe-gastuak, suhitzalgailuen mantenua, alarman hileroko kuota, SGAE,...

Egia da, tokian tokiko udalek lagundu digute, neurri ezberdinen bidez, gastu finko batzuk arintzen, terraza- eta zabor-tasak bolara batez kenduz, kontsumoa bizkortzeko bonuak ateraz, EPletarako laguntza emanez, terrazen azalera handitzeko aldi baterako baimenak emanez ...

Bestalde, lehenengo itxialdian, mutuan bidez, 666€ eta 1098€ arteko kopurua jaso genuen eta autonomoen kotizazioa kendu ziguten.

Bigarren itxialdian, irailaren 29ko 30/2020 Errege-Dekretuaren bidez, hilean 301,6 eta 377€ arteko kopurua jasotzeko eskubidea onartu zitzaigun (kotizazio mininimoaren oinarriari dagokionaren %50 kasu batzuetan eta %40 beste batzutan) itxialdiak irauten duen bitartean; era berean, ez digute kobratuko autonomoen kuotarik.

Eusko Jaurlaritzak, berriz, aurrikusiak ditu 3000 eta 4500 € arteko laguntza zuzenak, eta ostalari gutxi batzuk dagoeneko jaso dituzte.

Alokairuak dituztenen egoera, berriz, jabe eta maizterren akordioen baitan geratu da. Maileguen kasuan, ostalari askok ordainketen urtebeteko atzerapena lortu dute.



*Egiari zor, aitortu behar da administrazio ezberdinek ahaleginak egin dituztela gure egoera arintzeko; baina EZ DA NAHIKOA.*

*Faktura finko guztiak ordaindu ondoren, ikusi dugu ja sotako laguntzekin ostalari gehienok EZ DUGULA LORTU GASTU FINKOEI AURRE EGITEA.*

*Horrez gain, familia asko eta asko ostalaritzatik bizi gara, eta 2020 URTEAREN HERENA BAINO GEHIAGOZ GEURE BIZITZARAKO GASTUETARAKO DIRUSARRERARIK GABE GELDITU GARA.*

*Guipuzkoako ostalari gehienok autonomo txikiak gara, lokal bat edo bi errentan edo jabetzan ditugu, **baina ez dugu dirusarrerarik eguneroko bizitzako gastuei aurre egiteko.***

*Egoera horrek hainbat eta hainbat familia **miseriara** garamatza. Gure egoera animikoa ere desesperazioaren mugan aurkitzen da.*

*Ez dugu lan egiterik izan eta ezin izan dugu soldatarik eraman geure etxeetara.*

*Arrazoi horiek guztiak direla eta, honako eskaera hauek Osoko Bilkurari aurkeztu nahi dizkiogu, onartuak izan daitezzen :*

*1.- Gipuzkoako ostalaritzaren egoeraren berri ematea E U D E L i, Foru Aldundiari, Legebiltzarrari eta Eusko Jaurlaritzari.*

*2. Aipatutako erakundeei eskatzea, ostalarioro bizi dugunegoera ekonomikoari irtenbidea ematearren, martxoaren 14az geroztik, atzeraeraginarekin, gipuzkoako ostalaritzako autonomoei hileroko gutxieneko soldata aitortzea eta berori bideratzeko beharrezko diren izapideak burutzea.”*

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla .

**Aurkako botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva



Telleria.

Beraz, Udaltzarak gehiengoz ez du onartu Gipuzkoako Ostalaritza Aurrera elkarteak aurkeztutako mozioa.

**- GIPUZKOAKO OSTALARITZA AURRERA. PNV-PSE-EE UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA.**

Mozioak honela dio:

*“EAJ-PNV, eta PSE-EE talde politikoek Gipuzkoako Ostalaritza Aurrera plataformak erregistratutako mozio proposamenaren aurrean, honako mozio hau aurkezten dute.*

***Gipuzkoako Ostalaritza Aurrera plataformaren azalpenak:***

*Covid 19aren ondorioz, Estatuko Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak agindutako ostalararitza itxierak direla eta, ekonomiaren arlo hori jasaten ari den egoera larriari irtenbide egokia emateko neurriak har ditzaten eskatzeko UDAL MOZIO PROPOSMENA, Ostalaritza Aurrera Gipuzkoa plataformak eskatuta.*

*Urte honetako martxoaren 14ean, lehenengo Eusko Jaurlaritzak eta egun berean Estatuko gobernuburuak, ostalaritza isteko agindua eman zuten.*

*Maiatzaren 11n, deseskalatzeko 1. fasean, ostalaritza berriro irekitzeko baimena iritsi zen. Irekitzeko baldintzak hain murrizak izanik, ostalarien gehiengoak maiatzaren 25etik aurrera ireki zuen. Beraz, 71 egun itxita egon ziren gure negozioak.*

*Ekainaren 21ean alarma egoera altxa eta, pandemiaren bilakaera negatiboa zela eta, abuztuaren 17an murrizketa berriak etorri ziren eta gaueko aisia erabat itxi zen. Urriaren 25ean bigarren alarma egoera agindu zen eta azaroaren 6an bigarren itxiera iritsi zen.*

*Abenduaren 12an irekitzeko baimena izan genuen, ordutegi eta aforo murrizketa handiekin, 35 egun itxita egon ondoren. Baina ez genuen guztiok irekitzeko baimenik izan. Horrela, Arrasate, Ordizia eta Eibarrek itxita jarraitu zuten.*



*Handik hiru egunetara, Beasain, Zaldibia eta Azpeitiako ostalaritzaren itxiera agindu zen. Abenduaren 18an, berriz, Segura eta Eskoriatzako ostalaritza itxi zen.*

*Gaurko egunean, abenduak 31, Errezil, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga, Segura, Zaldibia, Arretxabaleta, Arrasate, Azpeitia, Beasain eta Ordiziako ostalaritzak itxita jarraitzen du.*

*Guztira, Gipuzkoako ostalariok gure negozioak itxita eduki ditugu 106 eta 125 egun artean, udalerrri bakoitzaren egoera epidemiologikoaren arabera. Gaueko ostalaritzak, berriz, 7 hilabetetik gora darama erabat itxita.*

*Eta itxita egondako epean ere, gure gastu finko guztiak ordaintzen jarraitu behar izan dugu: telefona, aholkularitza-gastuak, aseguruak, gastu informatikoak, gasa, argiindarra, OHZ, zaborren eta terrazen tasak, alokairuak, maileguak, banketxe-gastuak, suhitzalgailuen mantenua, alarmen hileroko kuota, SGAE,...*

*Egia da, tokian tokiko udalek lagundu digute, neurri ezberdinen bidez, gastu finko batzuk arintzen, terraza- eta zabor-tasak bolara batez kenduz, kontsumoa bizkortzeko bonuak ateraz, EPlutarako laguntza emanez, terrazen azalera handitzeko aldi baterako baimenak emanez ...*

*Bestalde, lehenengo itxialdian, mutuan bidez, 666€ eta 1098€ arteko kopurua ja so genuen eta autonomoen kotizazioa kendu ziguten.*

*Bigarren itxialdian, irailaren 29ko 30/2020 Errege-Dekretuaren bidez, hilean 301,6 eta 377€ arteko kopurua jasotzeko eskubidea onartu zitzaigun (kotizazio mininimoaren oinarriari dagokionaren %50 kasu batzuetan eta %40 beste batzutan) itxialdiak irauten duen bitartean; era berean, ez digute kobratuko autonomoen kuotarik.*

*Eusko Jaurlaritzak, berriz, aurrikusiak ditu 3000 eta 4500 € arteko laguntza zuzenak, eta ostalari gutxi batzuk dagoeneko jaso dituzte.*

*Alokairuak dituztenen egoera, berriz, jabe eta maizterren akordioek baitan geratu da. Maileguen kasuan, ostalari askok ordainketen urtebeteko atzerapena lortu dute.*

*Egiari zor, aitortu behar da administrazio ezberdinek ahaleginak egin dituztela gure egoera arintzeko; baina EZ DA NAHIKOA.*



*Faktura finko guztiak ordaindu ondoren, ikusi dugu ja sotako laguntzekin ostalari gehienok EZ DUGULA LORTU GASTU FINKOEI AURRE EGITEA.*

*Horrez gain, familia asko eta asko ostalaritzatik bizi gara, eta 2020 URTEAREN HERENA BAINO GEHIAGOZ GEURE BIZITZARAKO GASTUETARAKO DIRUSARRERARIK GABE GELDITU GARA.*

*Guipuzkoako ostalari gehienok autonomo txikiak gara, lokal bat edo bi errentan edo jabetzan ditugu, **baina ez dugu dirusarrerarik eguneroko bizitzako gastuei aurre egiteko.***

*Egoera horrek hainbat eta hainbat familia **miseriara** garamatza. Gure egoera animikoa ere desesperazioaren mugan aurkitzen da.*

*Ez dugu lan egiterik izan eta ezin izan dugu soldatarik eraman geure etxeetara”.*

Hori horrela:

- 1. Tolosako Udalak Europako Batzordeari, Espainiako Gobernuari, Eusko Jaurlaritzari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta udal-gobernuari, orain arte egin duten moduan, sustapen ekonomikoarekin eta zerga-sistemearekin lotuta, ezohiko eta beharrezko neurri guztiak hartzen jarrai dezaten eskatzen die, pandemiari aurre egiteko hartu diren neurri murriztaileek eragindako kalteak arintzeko.*
- 2. Tolosako Udalak erakundeen arteko lankidetzak indartzeko premiatzen du, erakunde-maila diferenteetan osagarriak izan daitezkeen babes-neurriak koordinatzeko, eta era horretan, neurri horiek sektore bakoitzera hobeto egokitzeko eta egoera ekonomikoaren bilakaerari jarraipen zorrotzagoa egin ahal izateko.*
- 3. Tolosako Udalak erabaki hau hartu izanaren berri aurretik aipatutako erakundeei emango die”.*

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

**Aurkako botoak:** Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana



Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla .

Beraz, Udalbatzak gehiengoz onartu du EAJ-PNV eta PSE-EE talde politikoek Gipuzkoako Ostalaritza Aurrera plataformak erregistratutako mozio proposamenaren aurrean aurkeztu duten mozioa.

### **17.GALDERAK ETA ESKAERAK.**

Besterik gabe, 21:55ean, bilera bukatutzat eman dute, eta nik, idazkari naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, alkateak ontzat emanda.

ALKATEA  
O.e.

IDAZKARIA





## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2021IPLE0001-2021-01-28 Ohiko Osoko bilkurako akta/2021-01-28 Ohiko